

Herririk herri

Boni Macarron eta martxanteren omenez oroigarri bat ipiniko du Durangoko Udalak Andra Marian. Senideek pozik hartu dute notizia. > 7



JAIK!

ZALDIBAR

Mañaritik mañariarentzat

Eskolan dela, kiroldegian dela... Mañariko gaztetxoek herritik kanpora ematen dute eguneko ordu asko. Herrian bertan denbora gehiago emanez euren arteko hartu-emanak sendotu ditzaten, aisialdi eskaintza zabala antolatzen hasi da guraso talde bat. > 03



Argazkia: Lehior Elorriaga

The Skatalites jamaikarren ska doinuekin hasiko dute Musikaire

Uztailaren 7an, The Skatalites Jamaikako taldearen kontzertuagaz hasiko da munduko musiken jaialdia, Elorrion. Uztailaren 30era arte, herriko plazako eta hiru jauregitako lorategietako emanaldietan, hamaika kultur emankizun izango dira gozagai. Jorge Pardo jazzlariak, Ba Cissoko musikari ginearrak eta Ruper Ordorikak joko dute, besteak beste. > 11

“Umeengan istripuak saihesteko gogoia piztea dut helburu”




Garazi Iriondo | Stop Accidentes-eko kidea > 10

**LAPUR
ERROTA**
• GASTRO EXPERIENCE •

Fray Juan de Zumarraga, 31 DURANGO

Tel.: 946 81 54 44

www.lapurerrota.com

 PARKING PRIVATUA

PIZZERIA PREST!

Italiatik ekarritako labe berriekin pizzak segituan!

- Aste bitarteko menua 9€ (BEZa barne)
- Asteburuko menua 12€ (BEZa barne)
- Etxera eramateko zerbitzua Bapo-Baporekin!
Pizzak eta hanburgesak.

JATETXEA

- Kartako menu berria 25€ (BEZa barne)
Eguerdietan astelehenetik barikura.
Domekatik eguenera gauetz.



Durangaldea > 4

37 ume saharar etorri dira Durangaldera uda pasatzera

Durango > 5

Hiru hilean Benita Uribarrena parkea berriztu gura dute

Zornotza > 2

Garraiolari baten heriotza salatu dute sindikatuek elkarretaratzean

Atxondo > 5

Azaroaren 5eko galdeketaarako sinadurak batzen dabilta

Herririk herri

“Osalanek, autopsiaz haratago, lan baldintzen ikerketa egin behar luke”

Zornotzako enpresa bateko garraiolariaren heriotza salatzeke kontzentratu dira sindikatuak



Eguaztenean Transportes Aguirre enpresaren aurrean kontzentratu ziren sindikatuak.

ZORNOTZA Joseba Derteano Astelehenean Zornotzako Transportes Aguirre enpresako langile bat hil zen lanean zebilela. Muxikan (Bizkaia) kamioia deskargatzen ari zela bihotzekoak eman zion, sindikatuak informatu dutenez. Istripu ez traumatikoa izan zenez, estatistiketarako bakarrik geratuko den kasua dela susmatzen dute sindikatuak, ez dela lan istripu moduan hartuko. Garraiolariaren sektorean sarritan ematen den kasua dela diote. “Osalanek autopsia egingo du, baina, horretaz, haratago lan baldintzei buruzko ikerketa bat egin behar luke”, LABeko Ibon Zubielaren ustez.

Istripu ez traumatikoetan lausoagoa izaten da istripuaren eta lan baldintzen arteko

lotura. “Guk argi dugu lan istripuak direla”, azaldu zuen Zubielak eguaztenean istripua salatzeke ELA, LAB, HIRU, ESK, STEILAS eta EHNE sindikatuak deitutako kontzentrazioan. “Lan baldintza kaskarrekin, lan erritmo altuak, atsedeen ezak... eragin zuzena izaten dute istripuetan”, gehitu zuen. Ildo beretik mintzatu zen ELAko Josu Otzerin jauregi ere. “Argi dugu lan istripuak direna. Mutuak eurak ere estaltzen saiatzen dira

“Lan baldintza kaskarrekin, lan erritmo altuak, atsedeen ezak... eragin zuzena dute horrelako istripuetan”

hain zuzena ez den erlazio hori aprobetxatuz. Lanetik kanpoko edo ohiko istripu moduan hartzen dituzte”, salatu zuen.

“Ematen du langileak edo trafiko istripuetan edo berez hiltzen direla, eta ez lan istripuengatik”

Kasu traumatikoetan, berdin Garraiolariaren kasuan, traumatikoak diren istripuetan ere antzerakoa gertatzen dela gehitu zuen HIRUko Jaione Ugaldek. Trafiko istripuak jarri zituen adibide moduan. “Ematen du garraiolariak edo trafiko istripuetan edo berez hiltzen direla,

eta ez lan istripuengatik”. Zubielak gehitu zuenez, “Osalanek ez ditu errepideetako istripuak ikertzen; zirkulazio istripu moduan hartuta, Ertzaintzaren esku geratzen dira, baina ikertu beharko litzateke langileak zer baldintzatan ari ziren lanean, eta hori Osalanen ardura da”.

Muxikan hildako langilearen kasuan ere Osalanek “estatistiketan sartuko” duen kasua dela susmatzen dute, eta ez duela “sakonago ikertuko”.

Bost hildako aurten

2017an 31 langile hil dira Euskal Herrian, sindikatuen arabera. Horietako bost garraiolariak izan dira. “Ia hileko bat hil da. Euskal Herriaren moduko herri txiki batean kopuru esanguratsua da”, Ugalderen ustez.

Lemoako igerilekuak bertakoen prezio berean erabilgarri

ZORNOTZA J. D.

Zornotzako Udalak eta Lemoako Udalak hitzarmen bat sinatu dute. Akordio horri esker, Zornotzan errolatuta dauden herritarrei, Lemoako igerileku irekietan abonua eginez gero, Lemoako erabiltzaileei aplikatzen zaien kuota berdina aplikatuko zaie igerileku erabiltzearentzat. Lemoarrek ere abantaila berdina izango dute Zornotzan, Larrea kiroldegian dauden igerilekuetan.

Horrez gainera, Zornotzako padel eta areto-futbol elkar-teei, Lemoako elkarten baldintza berdina aplikatuko zaizkie, Lemoako kiroldegiko azpiegiturak erabiltzeko erre-serba eginez gero.

‘Emakumeak, Afganistan’ erakusketaren azken egunak

MALLABIA J. D.

Emakumeak, Afganistan izeneko argazki erakusketa ikusteko azken aukera izango da asteburu honetan: zapatuan eta domekan, 18:00etatik 20:00etara. Gervasio Sanchez argazkilariak eta herrialde hartan bizi den Mónica Bernabé kazetariak 2009 eta 2014 artean egindako lana da. “Afganistanen agintean egon ziren aldian, etxetik kanpo lan egitea, ikastea eta laguntza medikoa jasotzea debekatu zieten Talibanek emakumeei”, diote. Baina hori Afganistango emakumeek beren etxeetan “bizi duten dramaren iber-garen tontorra” baino ez dela azaldu dute.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko ekainaren 30a
14. urtea - 683. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Bide hezkuntza tailerrea Mañariko bidegorriak zelan erabili ikasi dute; umeentzat ez ezik gurasoentzat ere baliagarria den ikastaroa izan da. Lehior Elorriaga

“Umeez bizimodua herritik kanpora egiten badute, Mañaria bizirik barik geratuko da”

Guraso talde batek bere gain hartu du umeez herriagaz duten lotura sustatzeko ardura

MAÑARIA Joseba Derteano
Ume batek amaitu ditu eguneko klaseak Iurretako Maiztegi ikastetxean. Ogitartekoa jaten duen bitartean, Durangoko kiroldegira doa. Han zain ditu lagunak, futboleko aritzeko. Sargori dago, eta etxera bueltatu aurretik bainu bat hartu du Tabirako igerilekuan. Ume hori Mañarian bizi da, baina herritik kanpora eman du eguna, kanpoko lagunekin. Herri txikietan askotan gertatzen den adibidea da, batez ere, herri handia, askotariko azpiegituz ondo hornitutakoa, gertu dagoenean. Mañarian dute bizilekua, baina ez euren bizimodua. Egoera horri buelta emateko, lanean dabil guraso talde bat. Aisialdi eskaintza zabal diseinatu dute gaztetxoak herrian dibertitu daitezten, herria ezagutu dezaten eta herriko beste umeekin hartu-eman sareak sendotu ditzaten.

Azken urteetan ume kopuruak ere gora egin du herrian. Badago lehengaia. Baina “bizimodua kanpoan egiten badute,

Mañaria bizirik barik geratuko da”. Profetikoa izan daitekeen hausnarketa horrek eragin da hasi ziren lanean, Kontxi Ikobaltzetak gogoratu duenez. Lanketa hori aurrera eramatea “gurasoei” zegokiela erabaki zuten, eta helburu argiak markatu zituzten. “Umeez ahalik eta bizimodu gehiena herrian egin dezaten gura dugu, eta euren arteko hartu-emanak indartu ditzaten”.

Herriak eskaini dezakeena modu atsegin eta dibertigarrian aurkeztea da gakoa. Propio duen

aberastasuna interesgarri eta tentagarri bihurtzea, imajinarioak lagunduta. Horren adibidea da iaz plazan egin zuten kanpaldia. Etxetik kanpora eman zuten asteburua, herritik irten beharrik barik. Plaza kanpin-dendekin bete zuten, izarren azpian lo egin eta eguzkiaren argitan bazkaltzeko. “Aurten derrigor errepikatu behar dugun ekintza da. Umeez eskatu dute, iaz oso ondo pasatu zutelako”, azaldu du Ainhoa Alzagak. Izan ere, umeen iritzia funtsezkoa da. “Ez dugu zerbait telegidatua

izatea gura. Umeei zer gura duten galdetu, eta gero baliabideen arabera egiten ditugu ekintzak.

Hainbat irteera antolatu dituzte, auzoetara zein mendira, herriko txokoak bertatik bertara ezagutu ditzaten. “Bakarrik joaten badira, segituan nekatzen dira, baina taldean badoaz itzel gozaten dute”, dio Mikel Garciak.

Beste ekimen “arrakastatsu” bat udalekuak dira. Iaz gurasoen ekimenez antolatu zituzten lehenengoz, ordura arteko baina adin tarte zabalagorako. Hain harrera ona izan zuen ze,

aurten astebetekoak beharreau lau astekoak antolatu dituztela.

Adinekoekin hartu-emanak
Beste ekitaldi batzuen bidez belaunaldien arteko harremana sustatzen dute. Esaterako, aurtengo txitxi-burruntzi egunean, nagusiek egindako tostadak eta erroskillak jan zituzten. Beste behin, herritik antolatutako krosean, gaztetxoek jubilatuen eskutik jaso zituzten freskagarriak. “Nagusiek pozarren laguntzen dute, gustura ibiltzen dira umeekin”, dio Garciak.

Finantziazioaren zati bat udalitik jaso dute: 8.000 euro. Gainerakoa lortzeko, hainbat ekintza antolatu dituzte: Olentzero abesten irten ziren, eta azokan bigarren eskuko produktuak saldu zituzten. Umeez aisialdian inbertituko dituzte xoxak dira.



Bizikletak zelan konpondu ikasteko tailer bat antolatu zuten Unai Urribarrigaz.



Inguruko mendi eta auzoak ezagutzeko, irteerak antolatzen dituzte.

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

TAKIJI KOBAYASHI
共同
NAGUSA KANPOAN BIZI DA & 1928KO MARTXOAREN 15A
Takiji Kobayashi
2017

TONTOLAPIKO
UME ETA GAZTEENTZAT
TONTOLAPIKO
Pello Añorga & Jokin Mitxelena
2017

JOSLU ANAYAK
MUSIKA
BETI ETA BETIKO
Joselu Anayak
2017

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



Iaz Joseba Acedok jaso zuen Durangaldeko argazkirik onenaren saria.



Durangaldekik kanpoko argazkirik onenaren egilea Leire Unzueta izan zen iaz.

Udako argazki lehiaketa irabazita, asteburu-pasa joateko saria

ANBOTOren argazki lehiaketa martxan ipiniko da datorren astelehenean

DURANGALDEA M. Onaindia Uda sasoi bikaina da argazkiak ateratzeko, eta ANBOTOk irakurleen irudiak jaso gura ditu bere webgunean. Gainera, lau sari irabazi ahalko dira, Duran-

galdeko eta eskualdez kanpoko argazkien ataletan. Epaileek aukeratzeko argazkientzat asteburu-pasa bana egongo da Eroski Bidaiak-en eskutik, eta publikoaren botoekin irabazten

duten biek tablet bana jasoko dute Abadiñoko Hiper Eroskiren eta eLAIA Information Technologyren partetik.

Astelehenean ipiniko da martxan lehiaketa.

----- OINARRIAK -----

EPEA
Irailaren 30era arte.

NORA IGO
www.anboto.org.

BALDINTZAK

- Bakoitzak 4 argazki gehienez.
- Edozein udatakoak.
- Egile bakarra.
- Aurrez saritu bako lanak.
- Argazki digitalak soilik.
- Izena, telefona eta posta elektronikoa bidali.

ERABAKIA

- ANBOTOk kide bi eta argazkilari bi dira epaile.
- Internetez bozkatzeko, urriaren 5etik 15era.
- Irabazleen izenak urriaren 20an.
- ANBOTOk argazkiak erabili ahalko ditu autorea aipatuta.

Saharako desertutik 37 ume etorri dira Durangaldera uda pasatzera

Sahararrak harrera familietan eta kanpamentuetan egongo dira udan zehar



Atxondon muntatu dute aterpetxea Hamadako Izarrak elkartekoek.

DURANGALDEA M. O. Joan zen asteburuan zehar 37 ume saharar ailegatu ziren Loiuko aireportura, Saharako desertutik Durangalderako bidaietan. Rio de Oro, Lajwad eta Hamadako Izarrak elkartek sustatuta, dozenaka familia eta boluntarioen ekarpenari esker daude hemen, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetako berotik irteteko. Eurretari bederatzi dira aniztasun funtzionala edo desgaitasunen bat dutenak, Rio de Orori esker datozenak.

Batzuek harrera familien etxeetan pasatuko dute uda.

Durangon zortzi umek hartuko dute babes, eta Elorrion bostek.

Eurretari bederatzi dira aniztasun funtzionala edo desgaitasunen bat dutenak

Elkartek sustatuta, dozenaka familia eta boluntarioen ekarpenari esker daude hemen

Gainerakoek Rio de Oro (Izurtzan) eta Hamadako Izarrak taldeak (Atxondon) egingo dituzten kanpamentuetan igaroko dituzte udako egunak, elkarregaz jolasten, begirale boluntarioez lagundurik. Rio de Oron, esaterako, 100 lagunetik gora ibiliko dira txandak egiten, behar bereziak dituzten bederatzi umek 24 orduko zaintza eduki dezaten.

Medikuarenera
Errefuxiatuen kanpamentuetan udan bizi duten beroa saihestez aparte, mediku azterketak egitea ere izango da egonaldiaren helburua.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak bost urtez jaso ahalko dira

Larrialdietako laguntzen irizpideak aldatu dituzte

DURANGALDEA M. Z. Durangaldeko amankomunazgoak gizarte-larrialdietako laguntzak emateko irizpideak aldatu zituen azken udalbatzarrean, zinegotzi guztien aldeko botoagaz.

Aitor Lopez presidentek jakitera eman zuenez, aldaketa nagusi bi egin dituzte gizarte-larrialdietarako laguntzetan. Alde batetik, laguntzak jasotzeko gehienezko urte kopurua hamabi hilabetetik bost urtera luzatu du amankomunazgoak. Hau da, orain arte urtebetez jaso zitezkeen gizarte-larrialdietarako laguntzak, eta orain bost urtez jasoko dituzte.

Bestetik, 2017tik aurrera energia gastuei, etxebizitzaren mantentzeari, etxearren aseguruari eta ondasunen inguruko zergari ere gizarte-larrialdietako laguntzaren bidez aurre egin ahal izango zaiela adierazi zuen Aitor Lopezek.

Aldaketa hauek, eta eskatzailen berrien kopuruaren igoerak 2017ko maiatzaren 31n 2016ko data berdinean baino 81.400,08 euro gehiago gastatzea ekarri diote Amankomunazgoari. "Beraz, laster agortuko dugu Eusko Jaurlaritzatik laguntza

hauengatik jasotzen dugun diru-laguntza, eta Eusko Jaurlaritzak beste urtebetez emandako laguntzak ez ditu Durangaldeko beharrak asetuko", adierazi zuen presidentek.

Horrez gain, Amankomunazgoak eskari guztiei erantzuko

2017an larrialdietako laguntza hauen bitartez aurre egin ahalko diote hainbat gasturi

Eusko Jaurlaritzari gizarte-larrialdietarako laguntzen zenbatekoa igotzeko eskatu dio EH Bilduk

na emango diela jakitera eman zuen Aitor Lopezek, "Eusko Jaurlaritzaren baliabideak bukatzen direnean, gure baliabideekin finantzatuko ditugu laguntzak".

Bestalde, Eusko Jaurlaritzari gizarte-larrialdietako laguntzen zenbatekoa igotzeko eskatu zioten EH Bilduko kideek.

Maialen Sarasua irabazle jaietako kartel lehiaketan

IZURTZA J.D.

Irailean izango diren Izurtzako jaiak Maialen Sarasua izurtzarraren kartelak iragarriko ditu. Aurtengo lehiaketara aurkeztu diren hiru hautagaietatik Sarasuarena aukeratu du Kultura Batzordeak eta herritarrek osatzen duten epaimahaiak. Kartelako irudiak Erdoitzako Andra Mari jaietako hainbat ekintza islatzen ditu eta, besteak beste, horregatik aukeratu dute.



ATXONDO M. Zuazubiskar

Atxondoko Gure Esku Dagoko kideei maiatzaren 7an Herri Galdeketa egitea ezinezkoa egin zitzaizen arren, hilabete hauetan lanean buru-belarri jarraitu eta dagoeneko badute galdeketa egiteko eguna. “Azaroaren 5ean Euskal Herrian herri galdeketa beste olatu bat egingo da, eta guk Otxandio gaz batera hartuko dugu olatua”, adierazi du Maialen Magunagoitia Gure Esku Dagoko kideak.

Hilabete hauetan guztietan erlojuaren aurka lanean ibili diren arren, dagoeneko une garrantzitsu batean sartuta daudela jakitera eman dute dinamikako kideek. “Galdeketa egiteko sinadura bilketa bat egitea beharrezkoa da, eta puntu honetara heltzea oso garrantzitsua zen guretzat”, aitortu du Maialen Magunagoitia.

Axpeko jaiekin batera sinadurak biltzen hasi ziren Gure Esku Dagoko kideak, eta herritarren erantzunagaz oso pozik daudela adierazi dute. Gainera, uztailearen 23ra arte Atxondoko auzo guztietan sinadurak batzen egongo direla jakitera eman dute.

Gaur, esaterako, Apatan egongo dira, San Pedro jaiak di-

Azaroaren 5ean galdeketa egiteko sinadurak biltzen dabilta Atxondon

Gure Esku Dagoko kideak sinadurak batzen egongo dira San Pedro jaietan



Jaien hasierako egunean ere hainbat sinadura batu zituzten.

rela aprobetxatuta. Baita bihar eta etzi ere. Horrez gain, uztailearen 7an, 14an eta 21ean ere plaza berean izango direla jakitera eman dute. Uztailearen 9an, berriaz, Arrazolan sinatzeko aukera eskainiko dute, eta uztailearen 22an, Santixan.

Dinamikara batzeko deia

Bestalde, Gure Esku Dagokoek herritarrei dinamikara batzeko deia egin diete. “Herritarrek babesten gaituztela badakigu, baina atxondarren laguntza ezinbestean behar dugu. Lau zororen zorakeria izan beharrean,

herri oso baten laguntza duen dinamika izatea gura dugu”, aitortu du Magunagoitia. Beraz, herritar guztientzat ateak zabalik dituztela, eta sinadura bilketa egunetan dinamikaren nondik norakoak azaltzeko prest daudela jakitera eman dute.

‘Nagusien Bidelagun’-erako 3.000 euro

IURRETA A.B.

Smurfit Kappa Nervion enpresako langile talde batek 3.000 euro eman ditu dohaintzan ‘Nagusien Bidelagun’ egitasmoa finantzatzeko laguntzeko. Langileek iazko lanaren aitortza moduan jaso dute dirua enpresaren eskutik. Iurretako Udalak Bizkaiko Gurutze Gorriagaz lankidetzan abiatutako proiektua da ‘Nagusien Bidelagun’, boluntariotza bidez pertsona nagusiei laguntza ematen diena. Urtean sei bat mila euroko aurrekontua du egitasmoak.

Tortilla eta bakailao txapelketan batuko dira, gaur, atxondarrak

Eskolako guraso elkarteko kideek bota dute jaien hasierako pregoia



Eguaztenean eman zioten hasiera jaiiei.

ATXONDO Maialen Zuazubiskar Eskolako guraso elkarteko pregoiagaz eta txopo txiki eta handia jarrita, eguaztetenetik San Pedro jaietan murgilduta dabilta atxondarrak.

Gaur, 20:30ean, tortilla eta bakailao txapelketan batuko dira herritarrek. Eta, ostean, Luhartz taldeak gaua girotuko du. Gaztetxean, berriaz, Ayatollah eta Kohatu taldeek kontzertua eskainiko dute.

Bestalde, biharko, egun osoko egitaraua antolatu dute.

15:00etan paella jateko batuko dira frontoian, eta, ostean mus txapelketa egongo da. 17:30ean elektrotzaranga hasiko da, eta 20:00etan Tio Teronen Semeak taldeak dantza saioa eskainiko du. Gauean, berriaz, Ezten Giro taldea arituko da herriko plazan, eta Atxondoko Gaztetxean Reggae gaua izango dute.

Paella jateko elkartuko dira atxondarrak herriko frontoian, zapatuan, 15:00etan

Domekan emango diete jaiak amaiera, pilota partiduekin eta talo janagaz.

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

TRAÑA-MATIENAN TXOKO BATEKO BAZKIDE IZAN GURA ZENUKE?

ORAINTXE DUZU AUKERA!

LANOSTE TXOKOAN HERRIAN BERTAN

Xehetasunak behar izanez gero,
deitu telefono zenbaki honetara.
Tel.: 625 700 486



“Emakume musulmanak jabetu eta integratzea da gure helburua”

Lehenengoz, Al Nourreko andrek jai zabala egin dute Ramadana amaitzeko



Mariam El Harrak presidentea, Pinondon ipini zuten standetako batean.

DURANGO Markel Onaindia Durangoko emakume musulmanek Ramadanaren amaiera ospatu zuten martitzenean, Pinondon antolatutako egitarau batez. Tea, bizkotxoak, tailerrak eta dantzak eskaini zituzten, besteak beste. Al Nour emakume elkarteak prestatu zuen jai, aurten lehenengoz zabala izan dena, herritarrekin euren kultura konpartitzeko asmoz. Izan ere, gizartearen baitan kokatzeko interesa dute. “Emakume musulmanak jabetu eta integratzea da gure helburua”, adierazi zuen Mariam El Harrak taldeko presidentek. Marokoarra sortzez, Durangon

11 urte daramatza bizitzen El Harrakek.

Pinondo etxean garatzen dituzte tailerrak: kaligrafia arabiarra, henna, cous-cousa koziatzea... Emakumeei laguntzea da euren asmoa. “Gaztelania

2008an sortua, gaur egun hogeit bat lagun ari dira lanean aktiboki, eta beste hainbat dituzte inguruan

ikasteko saioak ematen ditugu Pertsona Nagusien Hezkuntza institutura joan ezin direnen-

tzat”, azaldu du taldeko presidentek. 2008an sortua, gaur egun hogeit bat lagun ari dira lanean aktiboki, eta beste hainbat ere badituzte inguruan.

Bihar, Munduko Arrozak

Gainera, udaleko berdintasun eta immigrazio sailekin lankidetzan dihardute, eta baita beste elkarte batzuekin ere. Horren adibide da bihar ospatuko den Munduko Arrozak jaialdian Andreak emakume taldeagaz konpartituko dutela mahaia, besteak beste. 10:30ean hasiko da jaialdia, Jesuitak ikastetxean, eta 600 lagunetik gora batuko dira aniztasunaren alde.

Udaleko kide batzuek Fraile bisitatzea eskatuko dute

DURANGO M.O.

2015ean minbizia topatutako Gorka Fraile presoaren aldeko plataformak mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran, eta EAJk, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babestuta irten da aurrera, “oinarrizko eskubideen defentsa” dela nabarmenduta. Presoaren egoera “geldirik” dagoela diote. Udaleko kide batzuek Badajozeko (Espainia) kartzelan bisitatu ahal izatea eskatuko dute, bere egoera zuzenean ezagutzeko eta Fraileri babesa erakusteko.

Espetxe Zaintzako epaile nagusiagaz ere “premiako elkarrizketa” edukitzea gura dute, mozioan onartu dutenez. Izan ere, Fraileren “sendatzeko eskubidea bermatu dadin” bere askatasunaren aldekoak dira, legeak hori baliatzen duela ikusita. Presoaren senideek kezka adierazi izan dute, ebakuntza ondo joan arren minbizia berragertzeko edo hedatzeko arriskua ikusten dutelako.

Bilkura amaieran Ainhoa Sergiok hartu zuen berba, Fraileren lehengusinak, eta presoaren inguruko pertsonen eskubideak ere aldarrikatu zituen. Datu lez, aipatu zuen Fraileren 5 urteko alabak urteotan 82.000 kilometro egin behar izan dituela aita ikusteko, eta bisita orduak batuta, ez dela bost egunetara ailegaten.

Sexu erasoak salatzen du emakume batek

DURANGO M.O.

Astelehen goizaldean, 03:00 bueltan, sexu eraso bat gertatu zen Durangon. Emakumeak aurre egin zion erasotzaileari, eta gero salaketa ipini zuen. Ertzaintzak esan du salatutako gizona ikertu zutela, eta epaiketa azkar baten ostean, libre geratu zela, baina emakumea babesteko neurri batzuk ezarrita.

Udalak bandoa kaleratu zuen erasoak salatzen duen emakumea babesteko. Atzo iluntzerako mugimendu feministak deitutako mobilizazioagaz bat egin zuen, gainera.

Transexualek aldagela hautatu ahalko dute

DURANGO M.O.

Udalak aldaketa batzuk ezarri ditu kirol instalazioen araudian, eta transexualei identifikatzen diren sexuaren arabera aldagela aukeratzeko eskubidea ematea da esanguratsuenetako bat. Pilar Riosek proposatu zuen osoko bilkuran.

Bestalde, pertsonak bai-menik barik grabatzea falta larria izango da hemendik aurrera, eta baita eraso egitea edo irain egitea ere. Bazkide izaera galduko litzateke, eta gertakariaren arabera, polizia informatuko du udalak.

Arte eta Historia museoko Benita Uribarrena parkea berritzen hasi dira

Hiru hile iraungo duten obrei esker, parkea gune ireki bihurtuko da



Makinak lanean hasi dira asteen museoko parkean.

DURANGO M.O.

Udalak 104.000 euro erabiliko ditu Arte eta Historia Museoko parkea —ofizialki Etxezarreta izenekoa oraindik— berritzeko. Hiru hileko obrei esker, parkea gune ireki bihurtuko da. Gainera, argiteria eta hiri-altzari berriak ipiniko dituzte, eta hormak eta euri-sareak konpondu ere bai. Bost urtez itxita egon da, udalak “puntu beltz” moduan ikusi duela, eta kalteak ere sortu izan zirelako.

EH Bilduren ustez, herritarren eskariek eta auzolanek eragina eduki dute gobernu taldearen erabakian. Alderdiak sustatuta, auzolanak egin zituzten apirilaren 1ean eta ekainaren 3an. “Pozten gaitu ikusteak nola herritarrek behin eta berri egindako eskariek eta auzolanek azkenean eragina izan duten, eta utzikeria eta immobilismoan erosoegi dagoen go-

bernu taldea mugiaraztea lortu duten”, adierazi dute oharrean.

Argiteria eta hiri-altzari berriak ipiniko dituzte, eta hormak eta euri-sareak konpondu ere bai

Aurora Abasolori omena

Parke berriari Benita Uribarrena borrokalari antifaxistaren izena ipiniko dio udalak, herriko kale eta eraikinetan emakumeen izenak indartzeko asmoz. Aurretik, Bizenta Mogel idazlearen izena jarri zioten Bibliotekari, eta joan zen barikutik, musika eskola ondoko plaza Aurora Abasolori da, soprano durangarraren omenez. Bere omenezko plaka ipini zuten Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Rios alkateordeak.

DURANGO Markel Onaindia Durangoko belaunaldi askoren memorian daude Bonifacia Boni Macarron eta familia. 70 urte inguru eman zituen gozokiak saltzen Andra Mariko elizpean, beti adeitsu. Bertan martxan-teren omenezko oroigarri bat ipintzea erabaki du udalak aho batez, EH Bilduk proposatuta. Joseba Martin Macarron lobaren arabera, gustura hartu dute, baina monumentu edo plaka ez izatea eskatu dute, Boniren nahia errespetatzeko.

Pozik zaudete?

Bai, pozik gaude. Proposamena atera zenean, herriko jendearen partetik maitasun mezu asko jaso genituen, jendea asko gogoratzen da. Bilkuran emozionatu egin nintzen, izekok eta familiak egin zutenaren errekonozimendu lez ikusten baitut. Emakume langile eta umilak izan ziren. Karamelo saltzaileen familia izan gara gu; nire aita ere herririk herri ibiltzen zen erromerietan.

Jende askoren akorduan dago Boniren gozoki-postua.

Durangon galtzen ziren ume guztiak Bonirenean agertzen ziren. 'Maitea, geratu zaitez hemen, zure ama segituan etorriko da eta', esaten zien. Izekok seku-

“Herrian galtzen ziren umeak Bonirenean agertzen ziren”

Durangoko Udalak Boni eta martxan-terak omenduko ditu oroigarriagaz



Joseba bere izeko, ama eta lehengusua agertzen diren argazkiekin. Antza, Irlandako Mc Arron adarretik dator familia.

la ez du berba txarrik eduki inorentzat. Oso maitatua izan da.

Denetik zeukan postu koloretsu eta kurioso hartan...

Bai. Sobre sorpresak saltzen zi-

tuen asteburuetan, eta jendea horiekin zorutzen zen. Bizikleta bat tokatu zitekeen!

Zelan ekin zion salmentari?

Nire amamagaz hasi zen saltzen,

10 bat urte zituela, gerra sasoa zen eta... Nire ama eta ahizpa txikia hazten joan zirenean, laguntzen hasi ziren. Nire amak, Urdin tabernaren ondoan, Camyren denda lez ezagutzen zena

zeukan, izozkiak saltzen zituelako. Gero, Andra Marian gaztainak saltzen ere ibili zen, familia edukitzen hasi zen arte. Gu bost neba-arreba gara.

Gerra sasoiaren kanpora joatear egon ziren.

Aititek trenbidean lan egiten zuen, eta gerran etxeok tren batean sartzea lortu zuen, Bilbotik Errusiara edo Ingalaterrarrantz joateko. Baina lau egun egon ziren itxaroten, eta amamak bueltatzea erabaki zuen. Zorionez, ez zitzaion gutako inori ezer gertatu. Bonik ez zituen petardoak eta txapligoak gustuko, gerra gogoratzen ziotelako.

Etxean zelakoa zen Boni?

Ahizpa nagusia izanda, etxeok zaintzen ere ibiltzen zen beti. Urteek aurrera egin ahal, atsedean apur bat hartu behar zuela ikusten genuen, eta laguntzen egoten ginen. Malaga (Andaluzia) aldera joatea gustatzen zitzaion.

70 bat urtez egon zen...

Salmenta utzi eta gutxira hil zen, urte bira edo. Nik uste dut apur bat amatatu egin zuela jendeagaz ez egoteak. Bera oso bizia zen, bizitzeko gogo eta indar handikoa, ez zuen ezerk gogaitzen.

LGTBI+ harrotasunagaz bat egiteko ekimenak

Ortzadarra margotu dute parkeko eskaileretan

ZALDIBAR Itsaso Esteban Ekainaren 28an ospatu den lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen nazioarteko egunagaz eta hainbat herritarren proposamenagaz bat eginez, Jose Antonio Agirre parkeko eskailerak ortzadarraren kolorez margotu ditu Zaldibarko Udalak. Modu sinboliko horretan adierazi gura izan du udalak LGTBI+ kolektiboaren kontrako edozein diskrimina-

zio borrokatzeko konpromisoa. Kolektibo horren eskubideak aldarrikatuz EH Bilduk atzoko osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioan proposaturiko ekintzetariko bat da parkeko eskailerak margotzea. Mozio horretan, bestalde, herriko kale edo espazio bati *Ekainak 28* izena ematea eta LGTBI+ kolektiboaren memoria historikoa berreskuratzeko lan egitea ere proposatzen du EH Bilduk.



LGTBI+ kolektiboaren Harrotasun Egunagaz bat egin du gobernu taldeak.

Musikaire 2017 | UDAKO JAIALDIAK

07 THE SKATALITES
22:30 PLAZAN

08 SHAUN BOOKER
22:30 PLAZAN

ARRIOLA, Euzko Lehiaketa, bkk, AERDIA, METRAC, SPIN

anboto.org
MUGIKORREAN

Albistek eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

DESKARGATU DOAN!


Durangoko hilerriko hobi kometan 84 lagun lurperatu zituzten, eta aitortarik jaso barik segitzen dute

Berriketaren inguruan eta eraso politikoaren berriak, lehen berritasunak eta 84 lagun berri berritasun erabak

Guztizko aldarrikatzaileak: "Haber",

Errebonbilo kalea urbanizatzeko, herritarren iritzia jasoko dituzte

Uztailaren 5ean, Elorrioko udaletxean tailerra egingo dute herritarrentzat



Idoia Buruaga, Xabier Dominguez, Janire De Andres eta Agurtzane Elguren Errebonbilo kalean.

ELORRIO Maialen Zuazubiskar Asteon Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, Errebonbilo kaleko urbanizazio prozesuan herritarren parte-hartzea bultzatuko dute. “Kalearen egoera kaskarra da, eta ibilgailu eta oinezko asko batzen dira bertan. Beraz, ezinbesteko ikusten dugu gune historikoan dagoen kale hori urbanizatzea”, adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Gainera, Errebonbilo kalearen urbanizazioak, garatzen dabilzan errekarren berbideratzeak eta Ugarte kaleko proiektuak Elorrioko gune historikoari arnasmune bat emango diotela esan du Xabier Dominguez zinegotziak.

Bestalde, Agurtzane Elguren eta Janire De Andres ADI Bulegoko kideek jakitera eman dutenez, parte-hartze prozesua hiru

fasetan banatuko dute. Lehen fasea uztailaren 5ean hasiko da. Udaletxean egingo duten tailer batean, herritarrek beraien iritzia emateko aukera izango dute. Baita elorriarrei bideratuko zaien inkesta batzuen bidez ere. Uda ostean, herritarren aurrean proposomen bat aurkeztu, eta iritzia jasoko dituzte. Azkenik, proiektu teknikoak aurkeztuko dute.

Igerilekuko sarrera itxi zuten jende kopurua ez gainditzeko

ELORRIO M. Zuazubiskar Joan den asteko eguaztenean Elorrioko kanpoko igerilekuak itxi behar izan zituzten behar besteko jende kopurua ez gainditzeko. “Igerilekuan, legez, 1.400 pertsona egon daitezke, eta muga horretara heldutakoan igerilekuko sarbidea zarratzera behartuta gaude”, adierazi zuen Dani Palacios zinegotziak. Palacios jakitera eman zuenez, jendea “izugarri” haserretu zen, baina “ez zegoen beste irtenbiderik”.

“Eguaztenean egin zuen be-roak eragingo zuen igerilekua betetzea, eta horren aurrean neurriak hartzea ez da erraza”, gaineratu zuen. Hala ere, gertatu zena aztertzen dabiltzala argitu zuen.

Bestalde, zenbait elorriarren kexei erantzunez, Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak gezurtatu egin zuen zaldibartarrei Elorrioko igerilekuko harpidedun txartelaren erdia ordaintzen dietela.

Arregiren lanak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak

ELORRIO M. Zuazubiskar Ferixa Nausikoetarako karta la aukeratu dago. Maialen Arregi Ganboaren *Batu zeu be jaira* lanak iragarriko ditu aurtengo jaiak. “Kartel honegaz jaietan denontzat dagoela lekua adierazi gura izan dute. Txantxibiri abestiak dioen bezala, astoaren gainean atsoak barik, denetariko jendea egon daitekeela esan gura izan dut”, adierazi du Maialen Arregik.

Elorriarrak 2013 eta 2015ean ere irabazi zuen lehiaketa.



Eguaztenetik festa-giroa da nagusi Berrizen

Zapatuan udaletxeko lorategian paella eguna eta txosnagunean mozorro eguna ospatuko dituzte

BERRIZ M.Z.

Berrizko Bertso eskolako kideek irakurritako pregoi txikiagaz eta Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak botatako txupinazogaz, eguaztenetik jai-giroan murgilduta daude Berrizen. Astebururako ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian, eta hainbat kultur eta kirol ekitaldiz gozatzeko aukera paregabea izango dute herritarrek.

Bihar, esaterako, hainbat herritarrentzat jaietako egun handia den koadrilen eguna ospatuko dute. Lagunartean, paella lehiaketan eta mus, tute eta briska txapelketan arituko dira zenbait berriztar.

Herriko gazteek, mozorrotuta, txosnagunean bazkalduko dute, eta ondoren, denek batera, koadrilen jaietsieran parte hartuko dute.



Eguaztenean hasi zituzten San Pedro eta Santa Isabel jaiak.

Luzia Urigoitiagaz gertatutakoa gogoratuko du mural berri batek

Sasoi batean Urigoitiaren murala zegoen horma berean egingo dute



Osasun Zentroa dagoen eraikineko horma batean egingo dute.

OTXANDIO J. D.

Sasoi batean Luzia Urigoitia gogoratzen zuen murala zegoen horma berean beste bat egingo dute jaietarako. Pentsako titularrekin osatutako murala izango da. Urigoitiaren inguruan argitaratutako izenburuak ordenean jarrita, gertatutakoaren kronologia bat osatuko dute. Gobernu Taldeak (EH Bildu) joan zen asteko udalbatzarreraren eraman zuen proposamena, eta EAJ ados agertu zen.

Aurten 30 urte egingo dira Urigoitia hil zutenetik. 1987ko uztailaren 22an izan zen, Guardia Zibilak Donostia komandoaren aurka Pasaian egindako operazio batean. Gainera, 2015ean udalbatzarrak adierazpen instituzional bat onartu zuen, indarkeria politikoen biktiman izan zirenen memoria berreskuratzeko konpromisoa hartuz. Urigoitia gogoratzeko omenaldia prestatzearren lau otxandiar atxilotu ostean izan zen.

Murala santamaña jaietan inauguratuko dute. Urigoitia uztailaren 22an hil zuten, eta babiliteke egon horretan egitea edo, gutxienez, egun horren bueltan. Ekitaldi “xume eta sentikor” bat egitea gura dute, Urtzi Armendariz alkatearen esanetan. Familiagaz berba eginda eta euren oniritziagaz egingo dute. Muralari “mezu inklusibo bat gehituko diote, gertatu zen in-punitatea salatzeke eta zauriak behar den moduan itxi behar direla aldarrikatzeko”. Epaiketa bi izan ziren kasua argitzeko, baina akusatuak absolbitu egin zituzten.

Jaurlaritzari gonbidapena

Eusko Jaurlaritzari ekimenaren berri eman eta bidelagun izateko proposamena egingo diote. Izan ere, Urigoitia Jaur-laritzako ‘Biktimen Udal Erre-tratuak’ txostenean agertzen da eta biktiman lez aitortuta dago. “Muralean sustatzaile lez udala ez ezik Jaurlaritzaren ere agertzea litzateke idealena”, uste du Armendarizek.



Alkateari agur-gutuna eman diote Umerrikoek.

“Garain oso gustura egon gara, eta haren falta handia sumatuko dugu”

Umerri proiektuko guraso, ume eta hezitzaileak Garaitik Berrizera doaz

GARAI Markel Onaindia Durangaldeko hainbat familiak sortutako Umerri hezkuntza proiektuak sei urteko ibilbidea egin du Garain, eta orain agur esateko ordua heldu zaie, Berrizko ikastola zaharrena etapa berri bat hasiko dute eta. Motxila bete bizipen eta istorio jasota doaz herritik. Ane Baonak azaldu du pozik egon direla bertan, bai inguruagaz bai herritarrekin. “Garain oso gustura egon gara, eta haren falta handia sumatuko dugu”, aitortu du. Umeek gutun bat idatzi, eta Gontzal Sarrigoitia alkateari

eman zioten joan zen astean, despedidako eskertza lez.

Gotzaindegiaren jabetzakoa da Garaiko etxea, eta akordioa

Umeek gutun bat idatzi, eta Gontzal Sarrigoitia alkateari eman zioten joan zen astean

amaitu zaienez, beste leku bat topatu behar izan dute. Berrizko ikastola zaharra leku egokia iruditu, eta hantxe zabalduko

dute eskola. Gainera, homologatzeko asmoa ere badute. Zerbitzu bera ematen jarraituko dute momentuz, 12 urtera artekoa. Datorren ikasturtean 20 bat ume egongo dira gutxienez.

Umearen prozesua

Baonzaren esanetan, umearen berezko prozesua errespetatzen duen hezkuntzan sinesten dute Umerrikoek, bere nahi eta erritmoen arabera. Gainera, mugikortasunari garrantzia ematen diote, eta euskara eta natura ere ardatzak dira euren egunerokoan.

Fuensanta de Martos herriagaz senidetzea ofizialdu dute

ABADIÑO I. E.

Maiatzean, Traña-Matienako jaietan egin zuten ekitaldian irudikatu zuten Abadiño eta Jaengo Fuensanta de Martos herrien arteko senidetzea. Aste honetara arte, baina, Abadiño Udalean ofizialdu barik egon da senidetze hori. Abadiño Independenteen eta EAJren udal gobernuaren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz onartu dute senidetzea, martitzenean.

Bere abstentzioa azaltzeko, gaia ez dela udalean behar bezala eztabaidatu eta lanu adierazi zuen EH Bilduk. “Ikuspegi orokorrago batetik aztertu beharko litzateke beste herri batzuetatik Abadiñora etorritakoen ekarpena zelán aintzatetsi”, esan zuen Mikel Urrutia zinegotziak. Senidetzeaz aparte bestelako formulak aztertu behar lirateke, koalizioaren ustez.

Jose Luis Navarro alkateak esan zuen Jaengo herri horretatik jasotako proposamenari erantzunez burutu dela Fuensanta de Martos herriagaz senidetzea, eta gogora ekarri zuen abadiñar asko etorri zirela herri hartatik. Hala ere, gaia modu orokorrago batean aztertzeke eta aurrerantzean senidetzeak zelán egin adosteko prest agertu zen alkatea.

SEI HANKAKO MAHAIA

PILAR RIOS RAMOS
PSE-EE



Indarkeria sarean

Jende askoren ustez, sare sozialetan, Interneten edo hedabide digitaletan dagoen indarkeria ez da benetako indarkeria. Haien iritziz, birtuala denez, ez da egiazko indarkeria. Hala ere, zenbait azterketaren arabera, kontrakoa gertatzen da. Emakumeak Interneten barneratu eta horri denbora gehiago eskaini ahala, goraka hasten da emakumeen aurkako indarkeria, gero eta nabarmenago. Hortaz, sarean, denik eta matxismorik arriskutsuena eta hilgarriena azaleratzen da. Beraz, gure ustez, funtsezkoa da mota horretako prestakuntza ematea Andraguneko Ahalduzko Eskolan.

Indarkeria mota hau, emakume guztiok pairatzen dugu, baina neska gazteak izaten dira kaltetuenak eta ahulenak. Izan ere, haiek dira aktiboena sare sozialetan. Datuen arabera, Facebook-en eta mugikorretako mezularitzako aplikazioetan agertzen den indarkeria da gehien salatzen dena. Alabaina, salaketa horiei ez diegu beharko luketen arreta ematen beti. Azken batean, emakumeen kontrako indarkeria, hala digitala nola digitala ez dena, gizonen epaitzen dute gehienetan, eta jasandako kalte fisikoen arabera sailkatzen dute kategorietan.

Justizia ez da gizartea edo teknologia bezain azkar bilakatzen. Lan handia egin behar dugu, mota honetako indarkeriak emakumeei egiten dien kalte emozionala delitutzat har dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, kalte emozionala baita nabarmenena eta berehalako eragina baitu eguneroko bizitzan.

DURANGALDEA ASTEON

Munduko janaria dastatzeko aukera

OTXANDIO > Kultur aniztasunaren jaiak egingo dute domekan. 12:00etan munduko jolasak izango dira plazan; ostean, askotariko herrialdeetako janaria dastatu ahal da. 13:00etan kale animazioa hasiko da, Eguzki folk gaitero taldeagaz, besteak beste. 19:00etan Ummas kantautore brasildarrak kontzertua eskainiko du.

Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute

ELORRIO > Datorren martitzenean Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute. 12:00etan meza izango da basilikako eta Iurretako koruekin. 13:00etan luntxa egingo dute trikitilari eta bertsolariekin Berrio-Otxoa kalean. Azkenik, 20:00etan Berrio-Otxoa abesbatzaren musika entzun ahal da Santa Anako kaperan.

Euskaltegia merkeago izena aurretik emanda

DURANGO > Durangoko udal euskaltegia aurrematrikulazioa egiteko aukera egongo da uztailearen lehenengo hamabostaldian. Hilaren 3tik 14ra artekoa izango da epea, 10:00etatik 13:00etara. Aurrematrikula orain egiten dutenek %15eko deskontua izango dute matrikulatu, udalean informatu dutenez.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

Gurasoen ondoan hazteko eskubidearen alde

Aurreko asteko Anboto aldizkarian aukera izan genuen Araitx Zubimendi eta Alaitz Areitoren testigantzak irakurtzeko. Beraien hitzetan islatuta ikusi genuen euskal presoekin seme-alaben egoeraren larritasuna.

Ume hauek ez dute komunikabideen aurrean hitz egiten, ez eta parlamentuetan ere. Baina oso modu zuzenean bizi dituzte hainbat politika.

Batetik, urruntzea dela eta, gurasoak 600-800-1.000 kilometrotara izatearen ondorioz, ume hauek asteburu askotan furgoneta, kotxe, tren... batean pasatu behar izaten dute gaua. Horrek deskantsurik eza, estresa eta istripu arrisku handia dakartza.

Bestetik, bere egunerokotasunean, urrunketari ez ezik, ume hauek beste egoera zail bati egin behar diote aurre: bere gurasoen gabeziari. Estatu espainiar eta frantseseko nahiz nazioarteko arti-

kulu desberdinek eskubide hau aitortu arren, haur horiek nekez jaso dezakete preso dauden gurasoen afektibitate, eta ezin dira gurasoen ondoan hazi. Hilean behin edo gehienez bi aldiz egoten baitira haur hauek kartzelan gurasoekin, eta beti espetzeko espazio itxi eta txikitetan.

Munduko Osasun Erakundearen arabera, haur eta nerabeek gurasoen maitasuna, arreta eta kontaktua behar izaten dute; kontaktua fisiko zein emozionala.

Horregatik, bat egiten dugu euskal presoekin seme-alaben eskubide eta ongizatearen alde, ekainaren 30ean, Ezkurdi plazan, 20:00etan egingo den elkarretaratzean.

Mariam Bilbatua. Durangoko Sarearen izenean



Garazi Iriondo Trinidad | Irakaslea eta Stop Accidentes elkarteko teknikaria | Durango, 1988

> BERBAZ Aitziber Basauri
Bide heziketa txikitatik landu behar dela argi du Garazi Iriondok, Stop Accidentes elkarteko kideak. Lan horretan dihardu Durangoko ikastetxeetako neska-mutikoeekin, Durangoko Udalaren bide heziketa programaren bitartez. Hala ere, hezkuntza sare osora zabaldutako gaia izan behar dela uste du. Bide indarkeriaz hitz egin du duela 13 urte Enaitz neba istripu batean galdu zuenak.

Jabetzen gara autoa hartzean gure gain hartzen dugun erantzukizunaz?

Bai, baina ez behar beste. Ezer gertatuko ez zaigun ustea oso zabaldua dago. Adibidez, herriko jaiak hasiko diren honetan, tar-te laburrean alkoholemia-kontrolik egongo ez dela uste dute gazte askok, eta berdina zaie. Kontzeptu hori okerra da. Hori baino gehiago, alkohola hartuta nire gaitasuna handitu ala txikitu egingo den da kontua. Horri lotuta badago zer landu.

Azken urteetan eman da arrerapausorik?

Bai. Gero eta informazio gehiago dugu, ibilgailuak segurua goak dira, segurtasunari lotuta informazioa zabaltzeko gero eta aplikazio gehiago daude eta hildako kopurua gutxituz doa. Baina ez neurri berean. Hildako gutxiago egon beharko lirateke. Jaurlaritzaren datuen arabera, 2011n 60 lagun hil ziren errepidean; eta iaz, 46. Nabarmena da 2014ko datua: 29 lagun hil ziren.

Txirrindularien harrapaketak gero eta gehiago dira.

Oso deigarri egiten zait hori. Ez dut ulertzen. Badugu informazioa, eta bide ugari informazio hori eskuratzeko: jendeak badaki 1,5 metroko distantzia utzi behar dela txirrindulari bat arreraterakoan, eta etenik bako marra zeharkatu daitekeela. Pazientziarik ez dagoela uste dut. Urduritu egiten gara. Horren eraginez, txirrindulariek, zoritxarrez, lurrean bukatzen dute.

Oinezkoen harrapaketak ere ugaritu dira herriguneetan?

Bai. Lehenetsuna oinezkoena da, bai, baina horren aitzakian, autorik badatorren begiratu ere ez dugu egiten batzuetan. Zer esanik ez mugikorren edo musika entzungailuen erabileraren kasuan. Umeei esaten diet geurea dela lehenetsuna, bai, baina beti ziurtatu behar dela gidariak ikusi gaituela. Izan ere, ba-

“Kontrolatu ezineko egoera da istripua; aldiz, 140km/h-ko abiaduran gidatzea, nire erabakia”

Durangoko bide heziketa programaren barruan umekin lan egiten du Stop Accidentes-eko kideak



“**Batzuetan ustedut jendeak barre egiten diola gai honi. Errepidean ez goaz bakarrik**”

liteke despistatuta egotea eta ez ikustea.

Ikusgaitasuna tratatzen dute argiztapen eskasak edo hiri-altzariek. Neurriak behar dira?

Bai. Durangoko Udalera eraman izan dugu gaia, eta hasi dira neurriak hartzen. Zebra-bide batzuetan badabilta aparkalekuak kentzen espaloia handitzeko, oinezkoak ikusgaitasun handiagoa izan dezan. Zaborrontziak lekuz aldatu dituzte, eta loreontzi handiak jarri ibilgailuek ez aparkatzeko. Neguan batez ere, argiztapen gehiago behar dela ere uste dute umekin.

Herrigunean abiadura 30km/h-ra mugatu du Durangok.

Bai. Primeran deritzot. Erreflexuak asko aldatzen dira, eta

ez da beharrezkoa arinago joatea. Zebra-bide asko daude, eta zuhurrago ibiliko gara. Are gehiago, oinez, bizikletan ibiltzea bultzatu gura badugu. Hala-ko neurriak beharrezkoak dira.

Zein mezu helarazi gura diezu umei?

Umeengan istripuak saihesteko gogoia piztea dut helburu. Inork eragiten ez badu istripurik—zuhurrago gidatzen dugulako—ez da istripu-biktimari egongo. Orain oinezko, txirrindulari edo patinatzaile rola dituzte, eta oso garrantzitsua da horien eskubide eta betebeharrak ondo ulertzea. Burua babestearen garrantzia azaltzen diet, eta istripuek eragin ditzaketen ondorioak. Min fisikoa norberarena da. Baina min sentimentala, barnekoa, inguruko guztiena. Saiatzen naiz irudikatu dezaten nolako litzakeen etxea, logela edo jolasteko era, adibidez, mugikortasuna galduko balute. Segurtasun ekintzak sustatu nahi ditut: kaskoa jarri, zebra-bideetatik gurutzatu, alde bietara begiratu... Jarrera aktiboa ikusten zaie, mezua heldu zaien seinale.

“**Ni neu eta familia osoa bide indarkeriaren biktima sentitzen gara**”

13 urte dira Enaitz neba auto batek harrapatuta hil zela. Bide indarkeria badela uste duzu?

Kontrolatu ezineko egoera da istripua: bihotzekoak jota kotxea kontrolatu ezin badugu. Aldiz, 140km/h-ko abiaduran gidatzea muga 90km/h denean, nire erabakia da: ez dut, ez errepidea, ez bertan doazenak errespetatzen. Hori bide indarkeria da. Berdin drogak edo alkohola hartzean. Nebaren kasuan, gizon batek alkohola hartzea eta ezarritako abiadurari uko egitea erabaki zuen. Erabaki hori gure ondorioa izan da. Enaitz hil egin zuen, eta bera barik bizi behar dugu. Bitartean, gidariak bere bizitzagaz jarraritu du, ez zaio ezer pasatu. Ni neu eta familia osoa bide indarkeriaren biktima sentitzen gara.

Bide indarkeria, ezagutzen ez dugun kontzeptua da? Arlo horretan ari zarete lanean?


Ez da erabiltzen, baina oso ondo ezagutzen dute, Norvegiar adibidez: 0,02 miligramo litroko alkohol maila emanez gero, isuna jartzen dute, eta 0,08 emanez gero, 21 eguneko kartzelaldia; eta ez da beharrezkoa istripua eragitea. Oso kontzientziatuta daude; horrelako jarrerak bide indarkeria sustatzen dutela uste dute, eta ‘ez’ esaten diote. Arlo horretan lanean ari gara gu ere, ea gizartea zerbait aldatzen den. Batzuetan uste dut jendeak barre egiten diola gai honi. Errepidean ez goaz bakarrik, eta ez dut ulertzen batzuen jarrera. Nork bermatzen du guri ez gertatzea?

Kontzientzia hartzeko kanpaina abaituko duzu laster?

Bai, *Joan, etorri eta bizi*. Uzta-laren 1etik aurrera orri-markagailuak banatuko dira gasolindegietan, aholkuak emanez. Estimulu larregiko gizartean bizi gara, zuhurtzia suntsituz doa, eta errepidean igartzen da. Oporretan joatea itzela da, baina garrantzitsuena bueltatzea da.

JAIAK!

ZALDIBAR
2017ko UZTAILA



Zaldibarko udalak
Jai zoriontsuak opa deutsuez
zaldibartar guztioi



Zaldibar
Elizateko Udala

ZALDIBARKO JAIEN EGITARUA

Ekainak 30, uztailak 1 eta 2

XXVII. Areto-futbol maratoia kiroldegian.

Uztailak 1, zapatua

16:30 Eskualdeko X. pilota txapelketako finalak. Olazar pilotalekuan

Uztailak 2, domeka

08:30-14:00 XXXIV. Argazki rallya

10:30 Herrialdeetako eskola arteko txirrindulari proba. Irteera Autonomia eta Euskal Herria kaleen artean.

Uztailak 6, eguena

18:30 Herritarren artean Donien Atxa ipiniko dute udaletxe aurrean. Ondoren, jaietako kartelen lehiaketako sari banaketa.

19:00 Aureskua Helmuga Emakumeen Elkartearen omenez; jarraian, jaien hasiera iragartzeko txaplogua jaurtiko dute Helmugako bazkideek.

Gero **kalejira** Koral Elkarteko trikitilariekin eta buruhandiekin.

19:30 Poteo girotua.

20:00 Odoloste jana Bekoetxe kalean.

22:00 Elkartasun afaria txosnagunean.

23:30 DJ LORO txosnagunean.

Uztailak 7, barikua

8:30 (9:30) Mendi irteera familiarra, udaletxe plazan hasita.

17:30-20:30 Nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean

17:30-20:30 Herri kirolak umeentzat, Jose Antonio Agirre parkean

18:00 Pilota partiduak Olazar pilotalekuan

19:00 Trikitibertsopoteoa

19:00-22:00 Indarkeria sexistarik gabeko gunea jarriko du Bilgune feministak udaletxeko plazan.

22:30 Kontzertua txosnagunean: **ESKEAN KRISTÖ** eta **BAD SOUND SYSTEM** taldeekin

23:00 Dantzaldia DJ **JOSEMARI** gaz Euskal Herria etorbidean

03:00 Kulero, tanga eta galtzontzillo lasterketa

Uztailak 8, zapatua

10:00-13:00 Arku-tiro jokoak ume eta helduentzat Olazarko galerian.

11:00-13:00 eta **16:00-19:00** Umeen jolas parkea eskoletako jolastokian.

12:00 Tortilla txapelketa eskoletako aterpean.

14:30 Gaztelekuko bazkaria.

16:00 3x3 Saskibaloitxo txapelketa kiroldegian

17:30-20:30 Nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean

17:30 Olinpiadak

19:00 Afari-merienda herrikoia Olea kalean. Sardinak 2€ eta solomoa 1€

19:00 Mojito-poteoa elektrotxaragagaz

24:00 GOZO-GOZO erromeria txosnagunean.

Uztailak 9, domeka

11:00 Kalejira trikitilariekin.

11:45 Umeen euskal dantzak Zaldia plazan.

12:00 Dantza afrikarren ikuskizuna Zaldia plazan **MLOMP** taldeagaz.

17:30-20:30 Nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean.

18:00 "Ez da kasualitatea" bertso saio musikatua Zaldia plazan.

18:00 Umeentzat txiki-chef Jose Antonio Agirre parkean.

23:00 Su artifizialak Gaztetxearen ondoan.

Uztailak 15, zapatua

07:00- 15:00 40. Zaldibarko Mendi Martxa, Zaldia plazan hasita.

18:00 XXXIV. Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrean.

FRUITADENDA BARATZA URDAITEGIA
BARATZA FRUITADENDA-URDAITEGIA
 Santa Isabel, 2 behea
 Tel.: 946 225 063 - Zaldibar

PAULAREN ZOKOA
KAFE
 EL RINCON DE PAULA
 07:00etatik aurrera zabalik
 Euskal Herria, 18
 946 550 481 - Zaldibar
 Paularen Zokoa

IMENDIA
 • Fotokopiak
 • Prentsa salmenta
 • Gozokiak
 Tel./Faxa: 946 827 413
 Zalduasolo E.7 - ZALDIBAR

Azkonizaga
Edari banaketa
 GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
 ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK
 Ortuzar, 1 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
 azkonizaga@azkonizaga.com

KAROBİ
 Karobi tabernak jai garrantzitsuak opa diegizue!
 Zalduasolo Plaza, 2
 ZALDIBAR
 Tel.: 946 826 629

Castet
 Zaldibarko Herriko Taberna
Libre eta zabalik!

Sorgin
 TABERNA
 Izan aske,
 izan sorgin.

kizkitza
 taberna
 ETXEKO BEREZITASUNAK
 PINTXOAK - OGITARTEKOAK
 Tel.: 946 033 310
 Euskal Herria etorbidea, 30
 48250 ZALDIBAR - Bizkaia

> JAIK Markel Onaindia

Helmuga emakume elkarteak protagonismo berezia izango du aurtengo jaietan. Izan ere, elkarre honetako kideek txupinazoa jaurti eta pregoia irakurriko dute Zaldibarko jaietako hasiera emanez. Leonor Peña elkarte kideak azaldu duenez, euren asmoa bazkide guztiak balkoira igotzea da jaietako ekiteko. Albistea sorpresaz hartu ez duten arren, ilusioa egin diela aitortu dute taldekideek. “Espero genuen lehenago edo geroago txupinazoa jaurtiko genuela, jai batzordean urte bakoitzean elkarte batek ardura hori hartuko zuela adostu zelako”, diote emakume elkartetik. Helmugak badu esperientzia arlo honetan. 2012an ere elkarteak txupinazoa bota zuen. Sasoi hartan, Zaldibarko tonbolaren ardura duten emakumeak izan ziren udaletxeko balkoira igo zirenak.

Lehenengo pausoak

Leonor Peña eta Maria Jose Garcia izan ziren elkartearen sortzaileak. “Sasoi hartan, emakumeei zuzendutako ekintzak bultzatuko zituen elkarte baten falta sumatzen genuen”, azaldu du Peñak. Horrela, emakumeen parte-hartzea sustatzeko elkarte martxan jarzea erabaki zuten.

Harrezkero, Zaldibarko emakumeak laguntzeko prest egoten direla azpimarratu du Peñak.

Helmuga elkarte kideek jaurtiko dute jaietako hasiera emango dien txupinazoa

Elkarteko bazkide guztiak udaletxeko balkoira igoko dira uztailaren 6an, 19:00etan



Zaldibarko enkajerek Helmugan parte hartzen dute.

San Andresetako adibidea gogora ekarri dute elkarte ordezkariek. Emakumeei tortillak ekartzea eskatzen diete. Euro batera saltzen dituzte, eta batutako dirua tonbolako emakumeei ematen zaie. Ekimen honetan gura duenak parte hartu deza-

**Gaur egun,
70 bazkide batu
dira emakumeen
elkartera**

ke herrian. Gainera, elkarteak ogitartekoak egiten ditu, eta musika ere jartzen dute ekitaldia girotzeko.

Ekintzetara gizonak joan daitezkeen arren, bazkideak emakumeak dira. Gaur egun, 70 emakume batu dira taldera. El-

kartearen ibilbidea erreparatu, Peñak dioenez, instituzioekin tentsio handia izan dute urte hauetan. “Batuetan geuk ere sartuko genuen hanka. Baina gu oso borrokalaria gara gure helburuak lortzeko”.

2012an tonbolako emakumeek bota zuten jaietako txupinazoa

Ekintza asko

Helmugak hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar. Pintura eta bolillo tailerrek arrakasta izan dutela aitortu dute antolatzaileek. Sukaldaritza eta barreterapia ikastaroek ere harrera ona izan dutela dio Peñak. “Diruak ematen duena ematen du, ahal dugun guztia antolatzeko”. Urte bukaeran bazkide guztiak afari batean batzen dira, eta ekitaldi hori ere jendetsua izaten da. Era berean, irteerak arrakasta handia izaten dute.

Jaietan eraso sexistei erantzuteko protokoloa ipiniko dute martxan

Emakumeen kontrako erasoaren aurrean zelan jokatu azaltzen du protokoloak

> FEMINISMOA

Itsaso Esteban Jaietan gerta litezkeen eraso sexistei erantzuteko adostu duten protokoloa aurkeztu dute, asteon, Zaldibarren. Jaietan ere Zaldibar eraso sexistarik bako herria izan dadin jardungo direla azpimarratu dute agerraldian. Adierazi dute ez dutela emakumeen askatasun sexualaren kontrako erasorik, irainik,

jazarpenik edo bestelako indarkeriarik onartuko.

Erasoa jasan edo haren lekuko izanez gero, berau salatzeko jarraibideak ematen ditu protokoloak, eta baita eraso jasaten duen emakumea lagundu eta babesteko gomendioak ere. Bestalde, jaietan eraso sexistaren bat gertatuko balitz, berau gaitzesteko mobilizazioarako deia

egitea ere aurreikusten du protokolo horrek.

Herriko hainbat emakumek bultzatu dute protokoloa eratzeko, eta eskualdeko beste herri batzuetako gidak oinarritzat hartuz osatu dute. Tabernariei eta elkarteetako ordezkariak aurkeztu diete gida, eta tabernetan, txosnetan eta udaletxean egongo da eskuragai.



Hainbat herritarrek parte hartu zuten protokoloaren aurkezpenean.

etarte
www.etarte.com

Barne diseinua
Obra proiektuak
Jarduera legeztaizteak
Erreformak
Altzariak

Barne diseinatzailea:
Garazi Burgoa Zuazo

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR
T/F: 946 030 416 - 635 717 360
info@etarte.com

BBVA
ZALDIBAR

Euskal Herria z/g,
ZALDIBAR
946 827 302
946 827 151
www.bbva.es

SIKULAN
Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKOITZERAKO
SOLUZIO EGOKIENA

C/ Zubiarre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia
Tel: 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com

GAI



Zaldibarko jaietan errotuta dagoen mendi martxak 95-105 parte-hartzaile batu ditu azken urteetan. Argazkia: Zaldua.

28 kilometroko ibilbidea osatu dute 40. mendi martxarako

Uztailaren 15erako jarri dute hitzordua, Zaldua plazan, 07:00etan

> MENDIA A. Basauri
Zerbaki borobila beteko du aurten Zaldibarko mendi martxak. 40 urte beteko dira Zaldua mendi taldeak lehenengoz antolatu zuela ibilaldi neurtu hau, eta pozik daude izaten duen harreagaraz. Urte hauetan guztietan bikoiztu egin da partaideen kopurua. Hartara, 95-105 bat lagun batu ohi ditu Zaldibarko jaietan guztiz errotu den mendi martxa honek. Aurten, 28 kilometroko ibilbidea prestatu dute, 1.280 metroko desnibelarekin. Zailtasun berezirik ez duen ibilbidea dela dio Lelu Gaztelurrutiak, Zaldua mendi taldeko kidea; "herritar guztiei zabalduakoa". Hala ere, federatuta egotea eskatu dute.

Uztailaren 15erako jarri dute mendi martxa. Zaldua plazan irtingo dira, 07:00etan. Ariatzura bidea hartuko dute parte-hartzaileek, eta handik Zengotita (Mallabia) auzora joango dira. Oizetik Berrizera sartuko dira gero. Sarrimenditik Andikonara joango dira, eta gero Zaldibarrerako bidea hartuko dute. Udaletxearen aurreko plazan bukatuko da martxa. Ibilbidean zehar eta helmugan hornidura lekuak egongo dira parte-hartzaileentzat, jakinarazi dutenez.

Martxa amaitzean, oparitxo baina izango dute. Uztailaren 1ean zabalduko dute izena ematea.

Mendizaletasuna sustatuz
Zerbaki borobilagoa ospatzeko, hurrengo batera itxaron behar da, Gaztelurrutiaren berbetan. "Baliiteke 50 urte betetzean", dio. Hala ere, lehenengo urte haietaz galdetzean, bestelako saioiak zirela azaldu du. Mendizaletasuna bultzatzea helburu hartuta antolatu zuten I. Zaldibarko Mendi Martxa. Orduan, 50-60 lagun inguru batu ziren. "Mendi martxa herrikoa zen gehiago lehenengo urte haietan. Orduan ere eskaintzen zen edatekoa eta

jatekoa. Baina ez zegoen oraingo profesionaltasunik. Topera prestatuta datoz orain".

Pena apur batez ikusten du Gaztelurrutiak egondako bila-kaera. "Lehiarik ez dagoelako estimatu dut nik beti mendia. Hala ere, askorentzat ibilbide aproposa da entrenatzeko, eta guk horrelakorik gura ez dugun arren, parte-hartzaile askok korrika egiten dute martxan. Marka hautsi duten jakiteko, erlojuari begira ikusten dituzu asko martxa amaitzerakoan", dio. Dena den, mendi taldeko kidea pozik dago, jendea leku askotatik joaten delako: Santurtzitik, Irunetik... Logroñotik ere urtero etortzen dira anaiak bi. Sasoiara moldatu beharra dagoela uste du Gaztelurrutiak.

Hainbat ekintza

Zaldua mendi taldeak 60 bat bazkide ditu, eta urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditu. Urrian 4. Herri Martxa izango dute eta, urteberri egunez Santamañazarrera igoko dira, usadioari utsiz. Azkenengoz, 200 lagunetik gora batu ziren. Sagar-dotegira eta upeltegira irteera ere egiten dute, aurretik mendi buelta eginez.

"Lehiarik ez dagoelako estimatu dut nik beti mendia"

Urteberri egunez Santamañazarrera igotzen dira, usadioari utsiz

Olinpiadak berreskuratu ditu txosnaguneak

Udaletxe plazaren alboan egongo dira txosnak, eta egitarau zabala antolatuko dute bertan

> TXOSNAGUNEA A. Basauri
Gazteen eskutik, baina herri guztiari zabalik, ondo pasatzeko gunea eskaini gura du Zaldibarko txosnaguneak. Hori helburu hartuta, egitarau zabala osatu dute Gaztetxeak, Txinurriak taldeak eta Ernaik aurten ere. Berrikuntza moduan, eta iazko etenaren ondoren, olinpiadak berreskuratu dituzte, uztailaren 8an.

Olinpiadak dira jaietako ekitaldien artean jenderik gehien erakartzen dutena. Hala azaldu du Mirari Urizarrek. Nabarmendu behar da, aurten, edozein herritarrek duela bertan parte hartzeko aukera. "Lehenengo urteetan txosnen arteko olinpiada izaten zen, eta gerora herri elkarteetara zabaldu ginen. Iazko etenaren ostean, aurten herritar guztiei eman gura izan diegu parte hartzeko aukera", dio Urizarrek. Diberitzeko asmoz, jolasen bitartez jokatzeko dituzte olinpiadak.

Jaietako kamiseta jantzi-ta emango diete ondoetorria jaietara —aurten, aurretik eskatu dituzte; 230 guztira—, elektrotxarangak girotuta. Uztailaren 6an izango da hori. Afaltzeko el-

kartuko dira, ostean. Gau giroa, berriz, Dj Lorok alaituko du.

Eskean Kristo eta Bad Sound System taldeekin kontzertua antolatu du txosnaguneak uztailaren 7rako. Hala ere, izango da beste ekitaldirik. Sarririk eta Beñatek trikibertsoptea

Olinpiadak dira ekitaldien artean jenderik gehien batzen dutena

Herri guztiari zabalik, ondo pasatzeko gunea eskaini gura dute

antolatu dute arratsaldean, eta goizaldeko ordu txikietan kulero, tanga eta galtzontzillo lasterketa egongo da. "Asko dira parte hartzera animatzen diren herritarrik; mutilak batez ere. Horregatik, neskak ere animatu gura ditugu", dio Urizarrek. Uztailaren 8an, mojitopotea eta erromeria ere egongo dira.



Ondo pasatzeko gunea bat eskaini gura du Zaldibarko Txosnaguneak.

MUELLES ZALDUA S.L.

MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801 - Faxe.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
a@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

CAPELO

Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behea
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712

ZAGAR

SISTEMA TERMIKOAK ETA SUTEEN AURKAKOAK

ZAGAR SISTEMAS, S.L.

SISTEMA TERMIKOAK
Klimatizazioa
Aireberritzeko instalazioak
Energia berriztagarriak

SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOAK
Su-itxalgailuak
Suteetako ur-harguneak
Suteak antzemateko instalazioak

Mallabiko industrialdea - Solozabal Pol. - Pab. 7 - 48250 ZALDIBAR
Tel.: 946 826 673 - Faxe.: 946 826 671 - www.zagarsistemas.com

➤ **MUSIKA** Itsaso Esteban

Munduko musiken zortzi emanaldi, antzerki ikuskizun bi eta dantza garaikidea eskainiko ditu Musikaire jaialdiak, uztailean, Elorrioren. Uztailearen 7an, The Skatalites talde jamaikarrak eskainiko du jaialdiko lehenengo kontzertua, 22:30ean, elizpean. Hilaren 30era arte, Euskal Herriko eta Penintsulako beste hainbat herritako musikak ez ezik, Ameriketakoak eta Afrikakoak ere izango dira entzungai Elorrioko plazan eta jauregieta-ko lorategietan.

Jamaikatik AEBetara

Uztailearen 7 eta 8ko jaialdiaren lehenengo asteburu horregaz, indartsu, doinu biziekin, hasiko da Elorrioko Musikaire: Jamaikatik etorritako The Skatalites taldearen emanaldiaren ostean, Shaun Booker estatubatuarrarena arituko da zapatuan.

1964tik martxan dagoen taldea da The Skatalites, sasoi bakoitzean musikari desberdinek osatu dutena. Besteak beste, Bob Marley eta Toots & The Maytals taldeekin jo izan dute.

Bederatzi musikarik osatu zuten hasierako The Skatalites. Bederatzi musikari horiek elkarregaz jotzen ibili ziren 14 hilabeteetan irla osora zabaldu zen euren musikaren hazia, eta handik mundura. Ska, jazz, reg-

Elorrioko plaza eta lorategiak, munduko musiken agertoki

Uztailearen 7tik 30era eskaintza kultural oparoa dakar Musikairek Elorriora



The Skatalites ska, jazz, reggae edota dub doinuen aitzindariak eskainiko dute Musikaireko lehenengo emanaldia.

gae, dub eta blues doinu jamaikarren aitzindariak izan ziren.

Elorrioko plaza gospel eta blues doinuz beteko du, bestalde, uztailearen 8an elizpeko oholztatik arituko den Shaun Booker abeslari estatubatuarrak. Ella Fitzgerald jarraitzaile aitortua da Booker, eta energiaz beteriko zuzenekoak eskaintzen ditu.

Kantatzen duenean, entzule emakumei indar hori transmititu gura izaten diela esaten du Bookerrek, beragaz kantu, oihera eta dantza egin dezaten.

Uztailean, astebururo

Uztaileko asteburu denetan, munduko askotariko doinuak izango dira gozagai Elorrioren:

Mahotella Queens emakume Hegoafrikarrenak, Jorge Pardo jazzista flamenkoarenak, Ba Cissoko kora-jotzaile ginearrarenak, Ruper Ordorikarenak, Antonio Lizana saxofonistarenak eta Khami taldearenak, etab.

Gainera, antzerkia eta dantza garaikidea ere izango dira: Suripanta Teatrok *La Pelópidas* es-

UZTAILEAN

- 7an, 22:30ean, *plazan*
The Skatalites
- 8an, 22:30ean, *plazan*
Shaun Booker
- 14an, 22:30ean, *plazan*
Suripanta Teatro
- 15ean, 22:30ean, *plazan*
Mahotella Queens
- 16an, 19:00etan, *plazan*
Dantza garaikidea
- 21ean, 22:30ean, *Lariz jauregian*
Jorge Pardo
- 22an, 22:30ean, *Lariz jauregian*
Ba Cissoko
- 23an, 19:00etan, *Casa Jara jauregian*
Mikroantzerkia
- 28an, 22:30ean, *Tola jauregian*
Ruper Ordorika
- 29an, 22:30ean, *Tola jauregian*
Antonio Lizana
- 30ean, 19:00etan, *Tola jauregian*
Khami

kainiko du, eta Euskal Herriko sortzaileen dantza garaikideko lau obra eta hiru antzezlan labur ere izango dira ikusgai.

“Plazako, Tolako zein Larizeko aukietatik munduko hainbat lekutara” bidaiatzeko gonbidapena da, Idoia Buruaga alkatearen berbetan, Elorrioko Musikaire jaialdiarena.

Asier Eliasen bateriaren inguruan sorturiko jazz proiektua, Plateruenean

Uztailearen 5ean, 21:00etan, joko du Plateruenean Elias bateria-jotzaile durangarraren taldeak

➤ **MUSIKA** Itsaso Esteban

Lau urtez jazz baterian goi mailako ikasketak egiten egon da Asier Elias gazte durangarra Iruñeko kontserbatorioan, eta karrera amaieran aurkeztu duen proiektua dakar Durangoko Platerueneko Jazzeruena jaialdira. Ander Unzagak hammondagaz, Aitor Morenok baxuagaz, eta Jon Garciak gitarragaz lagunduko diote Eliasi.

Laukotearen hirugarren emanaldia izango da eguaztean Plateruenean izango den hori. Eliasek ikasturte amaierarako prestatu duen errezitaldirako sortu zuten Asier Elias Project, eta urte hasieratik ibili dira elkarregaz lanean. “Denbora

asko eskaini diogu, eta nahiko zainduta dago erreperitorioa”, adierazi du Elias Durangoko bateria-jotzaileak. Eliasen bateria izan ezik, elektrikoak dira laukotea osatzen duten beste instrumentuak, eta, beraz, “sonoridade nahiko elektriko” du Asier Elias Project laukoteak.

Larry Goldings Trio, John Scofield eta Path Methenyren bertsioak eta Asier Eliasen kanta bat izango dira entzungai Platerueneko emanaldian. *Anboto-ko Mari* izena du Eliasen kanta horrek, eta Kontserbatorioko konposizio klasean sortu zuen gazte durangarrak. Egilearen berbetan, “jazz moderno eta irekia” da bere kanta horretakoa.



Jazzeko bateria ikasketen amaieran eskaini duen emanaldia dago Asier Elias Project-en jatorrian.

Iruñean eman dituen lau urteetan lan handia egin duela dio Eliasek, eta “asko ikasteko eta musikari jatorrak ezagutzeko aukera” izan duela. Bereziki eskertuta dago Juanma Urriza irakasleagaz jarduteko aukera izan duelako. Izan ere, Bill Stewart

edo John Bonham bezala, asko miresten baitu Eliasek Urriza.

Goi mailako ikasketak egiteko aukera dagoenetik, Euskal Herriaren arloan aurrerapauso handiak eman direla uste du Eliasek, musikari gehiago eta hobek daudela. Aldiz,

kontzertuak eskaintzeko baldintzak gero eta kaskarragoak dira, eta horregatik eskertzen du Platerueneko aukera hau.

Jazzean ez ezik, oso gaztetatik Mocker's rock taldean dihardu Eliasek, eta aurreratu du irailan diskoa grabatuko dutela.

EIJO orkestragaz, euren herrian joko dute Erzillak eta Mardarasek

Durangon arituko da, uztailaren 2an, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra



Saxoa jotzen du Mardarasek, eta tronpeta Ertzillak.

> MUSIKA Itsaso Esteban Uztaillaren 2an, 20:00etan, Durangoko Andra Mariko elizpean arituko da Euskadiko

Ikasleen Jazz Orkestra, San Agustin kulturgunea antolatzen duen Uda Kalean Bizi programazioaren barruan. Eu-

ren herriko entzuleen aurrean jardungo dira orkestra horretako kide diren Jone Erzilla eta Markel Mardaras Durangoko musikari gazteak.

Tronpetista da Jone Erzilla eta saxofoia jotzen du Markel Mardarasek, eta Bartolome Ertzilla musika eskolan ikasita-koak dira. Erzillak aurten amaitu ditu gradu profesionaleko ikasketak, eta hirugarren maila bukatu berri du Mardarasek. Abenduan gainditu zituzten EIJO orkestran parte hartu ahal izateko sarrera probak.

Roberto Pachecoren zuzendaritza artistikoagaz jardun dira EIJO orkestrako gazteak domekan Durangon eskainiko duten emanaldia prestatzen, eta bi obra estreinatuko dituzte kontzertu horretan: Mikel Laboaren *Txoria txori* kantaren moldaketa bat eta Iñigo Peña-

ren *Orion*. Domekan Durangora etorri orduko, beste bi emanaldi eskainiko dituzte; Bilbon, gaur, eta Hernanin, bihar.

Duela hiru urte EIJO proiektua martxan jarri zutenetik, urtero parte hartu du bertan Durangoko musika eskolako ikasleren batek: lehenengoan Jone Erzilla eta Martin Gabiria egon ziren taldean, eta Esti Ibarra, iaz. Ander Erzilla irakaslearen ustez, "ikasleentzat aukera bikaina" da horrelako talde batean jotzea, besteak beste, irakasle espezializatuekin lan egiteko aukera dakarrelako.

Roberto Pachecoren zuzendaritza artistikoagaz jardungo dira musikari gazteak, Durangon

Mikel Laboaren 'Txoria txori' eta Iñigo Peñaren 'Orion' eskainiko dituzte Andra Mariko kontzertuan

GEURE DURANGALDEA

GARAZI MUGARZA MARKINA

Erizaina



Inertzia

Orain artekoa amaitutzat eman eta zerbait berria hastera zoazenean, beldur zara, baina gogoz ekin nahi diozu, eta eskolako nagusiena izateetik beste eskola bateko txikiena izatera pasatzen zara berriz; hanka sartzeko beldurrez ezer esatera ausartu ez eta oharkabe pasatzeko ahalegina egiten duena, beteroen izenak ezagutu eta suerta daitekeen guztiagatik etengabeko alerta egoeran dagoena, eta nagusiena zinela egin ohi zenuen antzera, inor ez da zutaz akordatzan.

Ez zenekien, baina eskola-ko txikiena zinenerako masako produkzio katean lehengaita zinen, eta bazenituen helburu bi: unibertsitatara iritsi eta gustuko lana lortu. Hori ez dizu inork esaten. Eta orain, zugandik espero zena lortu duzunean lasaitu zara. Bizitzari inoiz aukerarik eman ote diozun desbideratzeko etengabe jarraitu duzun lerro zuzen honetatik...

Datorrizunari ere itxura hartzen hasia zara, egingo duzunak ziurrenik gehiago du espero dutenetik zerorrek egingo zenukeenetik baino. Hala ere, aspaldi konbentzitu zenuen zeure burua: egingo duzuna, egin nahi duzuna da (gezurrari tamaina egokia ematea deitzen zaio horri).

Egunerokotasunaren inertzia gailentzen denean, errazena arrastaka bizitzea da. Edozein aukera omen da egokiagoa betiko galtzea baino (ene!). Saihestu nahi baduzu ere, galdu egiten zara galtzeko lekua duzulako; gero atzera egiten duzu, ze borondate eta ausardia itzela behar dira bestelako bideak hartzeko. Eta salduta sentitzen zara, ustez nahi dituzun guztiak egin da ere, sekula konformatzen ez zarelako.

Banartekoen ikasturte amaierako emanaldia

'Comunicado de muerte' eskainiko dute, gaur

> ANTZERKIA I. E.

Gaur, 19:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean eskainiko duten emanaldiagaz ikasturte amaiera ospatuko dute Banarte antzerki taldeko kideek. Talde horrek gidatu duen bederatzigarren antzerki tailer-rean prestatutako *Comunicado de muerte* obra eskainiko dute, antzezlari baten hiru barietate osatzen duten obra.

Tailerrean parte hartu duten hiru laguneko taldeak osatu dituzte *Comunicado de muerte* sortzeko. Taldekideetarik bat zuzendari legez jardun da, eta aktore lanetan ibili dira beste

biak. Testu beretik abiatuta, besteekin hartu-emanik izan barik prestatu du talde bakoitzak bere antzezlana. Ariketa horregaz, testu beraren hiru interpretazioen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ikusgai izango dira.

Frankistek 1974an garrotez erail zuten Salvador Puig Antich ekintzaile anarkistaren eta Jesus Irurre kartzelako funtzionarioaren arteko adiskidetasunaren ingurukoa da Rafa Herce Banarteko kideak idatzirikoa testua. Antichegaz izan zuen hartu-emanak Irurre zelan adatu zuen kontaktzen du.

Haizetara-ko publikoaren saria, Sugarri durangarrei

4.000 euroko saria jaso zuen Sugarrik Zornotzan

> MUSIKA M. O. / I. E.

Taldekideen gehiengoak emakumeak dituzten taldeak izan dira aurten Zornotzako Haizetara kale musika lehiaketan protagonistak. Jendetza batu zuen joan zen asteburuan egin zuten jaialdiak, eta nazioarteko musikariek jai-giro ederra zabaldu zuten herrian zehar. Epaimahaiak hala erabakita, Bartzelonako Balkan Paradise Orchestra izan da lehiaketaren 12. edizioako irabazlea, eta 10.000 euroko saria jaso du.

Aurreko edizioetan bezala, publikoaren saria ere banatu dute Haizetara jaialdian, eta

parte hartu duten bederatzietatik Durangoko Sugarri fanfarrak aukeratu dute entzuleek. Durangarrek jaso zuten, beraz, 4.000 euroko publikoaren saria.

Jendetza batu zuen joan zen asteburuko Zornotzako jaialdiak, eta jai-giro ederra sortu zen

Azkenik, Londresko Tell Tale Tusk taldeko hiru abeslariak jaso zuten musikaririk onenaren 1.000 euroko saria.

Ekainaren 30ean, barikua
20:00 Andra Mari kalea
Magia hurbiletik
David Blanco, Asier kidam

EIJO
Uztaillaren 2a, domeka
20:00 Andra Mariko elizpea
Euskadiko Ikasleen
Jazz Orkestra

Uztaillaren 6a, osteguna
20:00 Balbino Garitaonandia plaza
Lapurminak
Cia. Tornado

san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ANTZERKIA ZIRKOA MAGIA

uda kalean bizi 2017

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

UZTAILAK 5
21:00etan
ASIER ELIAS PROJECT
KONTZERTUA

UZTAILAK 12
21:00etan
JUAN DE DIEGO
KONTZERTUA

UZTAILAK 19
21:00etan
ELKANO BROWNING CREAM
KONTZERTUA

Ibon del Olmo Zubillaga (Durango, 1994) | Futbol-epailea

“Askok uste dute epaile lana bakarkako zerbait dela, baina talde batua gara”

Aurten Maila Gorenean aritu da epaile

> KIROLA Joseba Derteano
Bost urte daramatza futbol-epaile lanetan. Denboraldi ba-koitzeko koska bat igo du eta Maila Gorenean aritu da aurten. Epaileek euren artean duten elkartasuna azpimarratu gura izan du. Ez daude bakarrik. Harreman estua dute, elkar babes-ten saiatzen dira eta hurkoaren lorpenak ospatzen dituzte.

Zure lagunek galdetu dizute inoiz: zergatik epaile?

Lagunak harritu egin ziren. Ez nuen futboleko jokatzeko eta, bat-batean, epaile! Ez nuke asmatuko arrazoitzen zergatik hasi nintzen. Bizitzako une batean pentsatu nuen: eta hau balitz benetan ondo egiten dudana?

Beraz, ez zen zaletasuna piztu zizun txispa konkreturik izan?

Hasteko, ez. Baina, ondoren, izan zen txispa bat egunetik egunera epaile hobe izatera eraman ninduen. Eta txispa hori ezagutu nituen lankideak izan ziren, gaur egun oso lagun onak ditudanak. Partidu konplikatu bat duzunean animatu egiten zaituzte, eta partiduetara joaten dira. Eta, beharbada, atsedendian deitu egingo dizute gomendioak emateko. Gure artean hartu-eman oso ona dugu. Askok uste dute bakarkako zerbait dela, baina ez da horrela, talde batua gara. Baten bat partidu garrantzitsuren baten atarian badago, elkarregaz bazkaltzen joaten gara, eta une horietan jokalariek beste gozatzen dugu.

Hartu-eman estua duzue.

Bai. Guk ere gure whatsapp talde txikiak ditugu. Jokalariek euren netan gu kritikatu gaituzten moduan, guk ere berdina egin dezakegu: ‘kontuz jokalarik honegaz’ edo ‘partidu honetan zein jokalarik zaindu behar dut?’.

Zein da epaitu duzun partidurik inportanteena?

Marrazain lanetan ibili nintzen bat dut gogoan. Jaitsiera postua

zegoen jokoan. Tentsioa nabari zen giroan eta harmailtan.

Eta deskuidurik txikienean lehertu daitekeen presio-eltze hori zelan kudeatzen da?

Bi aukera daude. Edo dena adieraztea, orain falta txikia dena hurrengoan larriagoa bihurtu ez dadin, edo jokatzeko gehiago uztea. Ni gehiago naiz jokoa moztekoa. Jokalariekin komunikatzen jakitea ere garrantzitsua da, broma txikiak ere egin daitezke, beti ere neurri bateraino.

Gaitza da distentsioaren eta irimotasunaren arteko oreka aurkitzea?

Inpartziala izan behar duzu alderdi guztietan. Hau da, jokalarik bati bromatzea egiten badiozu eta beste taldekoren baten ikusten badu, txarto pentsatu dezake. Azken batean, oreka hori mantentzea dohain bat da. Epaile onenak komunikatzaile trebeak dira. Jokalaria lasai mantentzeko abilitadea dute.

Zu zelakoa zara futbol-zelaian?

Modu onean esanda, badakit kritikak onartzen. Beste kontu bat da modu iraingarrian datozenean. Neurriak hartu behar dira. Ez norberagatik bakarrik, baita jarrera horiek zaleengana zabaldu daitezkeelako ere.

Epaileenganako irainak ohi-koak dira? Zaleengatik diot.

Egia esan, zaleen partetik irain gehiago entzuten dira. Jokalariek badaki zigorra izan deza-keela: txartel horia zein gorria. Baina zaleen aldetik ez dugu zeregirik, aktan jasotzeaz besterik. Sarritan gehiegi grinatzen dira. Edo onartzen duzu edo epaile lana uzten duzu. Hau guztia errotoz erazuzi beharko litza-keela uste dut. Ez dago nire esku.

Federazioaren esku dago. Zertan hobetu dezake?

Hainbeste gauza dira... Zigor gogorak, diziplina-zigorak klubeko kidea bada, presentzia poli-



ziala... Baina federazioarentzat hori guztia zaintzea oso zaila da. Ezinezkoa, kasik.

Klubak ere hor daude. Badute euren erantzukizuna.

Klubak, sarritan, euren artean babesten dira. Beraz... gu ere gure artean babesten garela esan beharra dago, denak.

Irainak eta errespetu falta areagotu egiten dira oinarrizko futboleko umeei gurasoekin?

Umeen partiduetan, futbol 7an, ez da arazorik egoten normalean. Gurasoak adeitsuak izaten dira. Kadete eta gazte mailetan, aldiz, desberdina da. Euren semeek aukeraren bat huts egin da frustratu egin direlako edo batek dakit zergatik, ikaragarri berotzen dira epaileekin.

Inoiz zure segurtasuna arriskuan sentitu duzu?

Zorionez, ez. Partidu oso zailak izan ditut, eta denetan ez nuen asmatuko, baina zorrea izan dut. Inoiz delegatua nigaz etorri da futbol-zelaitik irteterako orduan, badaezpada. Hori eskertzekoa da. Eta inoiz entrenatzailearen bategaz arazoren bat izan dut, baina besterik ez. Gogoan dut behin lankide bati hortz bat apurtu ziotela.

Epaile izateko gaintu beharreko probak gogorak dira?



Epaile onenak komunikatzaile trebeak direla uste du.

Jokalariek bezain gogor entrenatzen naiz, astean birritan. Asko entrenatu eta ikasten dut, ahalik eta epaile onena izateko. Epaile izateko azterketa bera ez da zaila, eramangarria da. Baina gora egiteko eta nagusien mailatan aritu ahal izateko proba fisikoak gogorak dira. Oso ondo prestatuta egon beharra dago. Maila Gorenetik aurrera egiten dizkiguten probak Lehenengo Mailako epaileen berdinak dira.

Baduzu erreferenterik?

Aitor Villatek —Lehen Mailako laguntzailea— adi jarraitzen gaitu. Gure partidua ikusi eta gomendioak ematen dizkigu. Ri-

cardo de Burgos Bengoetxea eta Iñaki Vicandi Garrido dira beste erreferente bi. Lehenengo Mailako epaileak dira eta etengabeko hartu-emanetan gaude eurekin. Gure zaintzaileak dira.

Lehenengo Mailara heltzea duzu amets?

Zaila da, adinagatik. Arauen arabera, adin jakin batera heldu baino lehenago lortu behar da. Gainera, epaileen artean maila handia dago. Nire ametsa Hirugarren Mailara heltzea da. Lepo beteta dagoen zelaian arbitrazteak motibatzen nau. Erantzukizun handia izanagatik, gehien horrexek motibatzen gaitu. Nik hau dena afizioagatik egiten dut.

Tabirako igerilekua eta bere inguruak triatloilari txikiz beteko dira zapatuan

Mugarra Triatloi Taldearen ekimenak gaztetxoek artean zaletasuna piztea du helburu



Igerilekuaren inguruan ibiliko dira korrika, eta Tabirako ermitaraino joango dira bizikletan.

> TRIATLOIA J. D. Mugarra Triatloi Taldeak VIII. Triatloi Txikia antolatuko du zapatuan Tabirako igerilekuan

eta bere inguruetan, gaztetxoek artean zaletasuna pizteko. Inoiz baino parte-hartze handiagoa espero dute. Aurtun, udalekuak

egiten dituzten bitartean antolatu dute triatloia, eta han dabilzan gaztetxoek ere parte hartuko dute ekimenean.

Haur-kategoriatik (2003an jaiotakoak) aurrebenjamin mailara (2009tik aurrerakoak) artekoek parte hartu dezakete, eta egunean bertan ere egin daiteke izen-ematea, 08:45era arte.

“Ez dira distantzia luzeak. Triatloia erdigune dela gaztetxoek gozatu dezatela da helburua”

Lasterketak 09:00etan hasiko dira. “Ez dira distantzia luzeak izango. Gaztetxoek ondo pasatu dezatela da helburua, triatloia erdigune dela dibertitu daitezela”, adierazi du triatloi taldeko Serafin Bereziartua *Txelak*.

ADITUAREN TXOKOA

IÑAKI IZA ZARAZUA
Pilota



Emakumeen pilota plazara

Martxan daude jada Zornotzako emakumeen binakako esku pilota eta pala txapelketak. Eskuzko txapelketan hainbat herritako bost bikote ari dira lehenengo fasea jokatzen igande goizero. Pala-koan, aldiz, larunbat goizetan eta astearte zein asteazken arratsaldetan jokatzen dute txapelketa osatzen duten bederatzik bikoteek, denak zornotzarrak direlarik.

Erdu Pilotan taldeak antolatutako txapelketak kluba sortu zenetik emakumeen pilota plazaratzea bultzatzen ari direnaren erakusleihio dira. Gogoratu nahi dut ‘Emakume Master Cup’ txapelketa arrakastatsuan ordezkari gehien talde honek aurkeztu zituela, hamabi guztira.

Baina herritik eta herriarrentzat antolatutako txapelketa hauen xedea bestelakoa da; alde batetik, herriko emakume guztiei parte hartzeko aukera eman zaie, eta bestetik, eta garrantzitsuena, parte-hartzaile guztiek, ondo pasatzearekin batera, pilotaz disfrutatzeke aukera paregabea dute. Horrekin batera, kasu hauetan ezinbestekoa den aldarrikapen kutsua ere hartzen dute jaialdiek, noski. Pilotariak beraiek baitakite aurrerapauso garrantzitsuen protagonistak izaten ari direla. Giro zoragarria sortzen da Amorebieta IV pilotaleku ederrean lehenago aipatu ditudan egunetan, eta uztailaren 25ean finalak jokatu bitartean, giro horren partaide izatera gonbidatzen zaituztet. Emakumeen pilotaren plazaratzearen parte izatera, alegia.

Izen-emateak agortu ditu Sapubike martxak

400 parte-hartzaile izango dira irteeran

> MTB MARTXA J. D. Ez dago leku gehiagorik Durangoko MTB Sapubike martxan parte hartzeko. 400 lagunentzako tokia zegoen, eta heldu dira jada kopuru horretara. Domekan, 09:00etan, Tabiratik abiatuko den proba ezagun egin da

Durangon zein eskualdean, ibilbidea ondo zaintzen dutelako eta ukitu bereziak ematen saiatzen direlako urtero. Aurtengorako ere tarte berri bat baino gehiago prestatu dute. Bitaño, Neberondo eta Landaederratik ibiliko dira, besteak beste.



Ibilbidean tarte berriak sartzen saiatzen dira urtero.

Eskarmentua, DRTko neskak entrenatzeko

Muir Kara aukeratu dute entrenatzaile kargurako

> ERRUGBIA J. D. Errugbiaren munduan jakintza eta eskarmentu oparoa dituen Muir Kara zeelanda bertarra aukeratu dute hurrengo denboraldian emakumeen taldea zuzentzeko. Durango Rugby Taldea ezagutzen du, 2005-06 denboraldian bertan jokatu zuen eta. “Jokalarari moduan ez ezik pertsona lez ere oroitzapen oso ona utzi zuen”, azaldu dute DRTko arduradunek ohar batean.

Entrenatzaile jardunean esperientzia zabala du gizonkin zein emakumeekin. 2011n Euskadi Touch Rugby elkartearen sortu zuen jokalarari, entrenatzaile zein epaileak errugbian

trebatzeko. Gainera, hainbat entrenatzaile titulu ditu eta 2. Mailako epailea da. “Emakumeen taldeari alderdi tekniko zein humanoa emango dizkiola uste dugu, eta emakumeen tal-



MUIR KARA

dea sustatzen eta talde handi bat sortzen lagunduko duela”. Jokalarari moduan hainbat talde gaz eta selekzioagaz aritu ostean, Ingalaterran finkatu zen 2002ra arte. Ondoren, Getxo Rugby Taldean aritu zen.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!



Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902

“BEHERAPENAK”

UZTAILAREN 1etik 22ra



SCHMIDT ABADIÑO

Murueta auzoa, z/g - 17B lokala

Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO

Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com

www.schmidt-cocinas.es

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar

* Ikusi baldintzak dendan. SCHMIDT GOKUPRE SA S - RCS. ENBUHAY 9.326.799.7977 - C/rensi Agardioa - Ate 100 - 48940 Leizor (Bizkaia) - Tel. 946 526 195

EDERTASUN GIDA



Jon Sopelana (lunik)

Udarako aholku eta zerbitzuak

Udan ez duzue lunik ile-apaindegia itxiko.

Abuztuko lehen astean ordutegi normala edukiko dugu, eta hurrengoetan goizez bakarrik. Udan ile kizkurak eta uhinak gehiago eramaten dira, eta horretarako, permanentea eta beste lan tekniko batzuk ditugu ile-apaindegian. Baina etxeko orrazkera aldatuz ere lortu daitezke; hori egiten erakusteko prest gaude.

Udan zer estilo ikusiko dugu?

Ilea azkarrago hazten da beroaren eta eguzkiaren eraginez. Batez ere ile laburrek nabaritzen dute. Modari dagokionez, 90eko hamarkadako estiloak eramaten dira, baina nabaritu dut Durangon Rock&rolla asko maite dugula, eta 80ko urteetatik irteera kostatzen zaigula.

Zer egin daiteke koloreak mantentzeko?

Koloreak ematerakoan, kalitateari garrantzia ematen diogu luniken. Uda pasatu ahala, gure koloreak distira mantentzen dute.

Beste tratamendu batzuetarako ere sasoi egokia izan daiteke.

Estetikan, gorputzeko tratamenduak, pedikurak eta depilazioak dira nagusi udan.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Aramaio. Baserri etxea. Aukera asko. 360m2-ko azalera. 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lur eremua. Eguzkitsua, Urkiolako Parke Naturalaren ikuspegi zoragarriak. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669 064 788.

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

Zornotza. 3 logela, egongela 1, sukaldea, 2 bainugela, ganbara, balkoia, gasoil berogailua eta teilatu berria. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695 70 18 58.

ERRENTAN EMAN

Durungaldea. Apartamentua alokatzen da Vieux-Boucau herrian, Le Boucanier erresidentzian. Tel.: 675-71 93 63.

Durungaldea. Atiko txiki bat alokatzen da, igogailuarekin. Bikote batentzako aproposa. Azoka inguruan dago. Prezioa: 490 euro. Tel.: 695-74 22 38.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durungaldea. Fisioterapia zentro batek gela bat alokatzen du beste osasun profesional batentzat (psikologia, podologia, nutrizionista, logopeda...). Tel.: 944-66 94 00.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Durungaldea. Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Goizez, pare bat orduz, lan egiteko prest. Tel.: 697-49 20 58.

Durungaldea. Lan bila nabil. Garbiketan, adibidez. Durangon edo kanpoan lan egiteko prest. Tel.: 622-62 32 16.

Durungaldea. Lan bila nabil etxek garbitzen edo etxeko langile moduan. Goizetan 2 orduz lan egiteko prest. Tel.: 655-85 79 95.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Pertsona arduratsua, erreferentzi eta eskarmentuarekin lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan aritzeko prest. Beherala lanean hasteko moduan. Tel.: 631-41 58 36

Durungaldea. Neska euskalduna, ikasketekin eta esperientziarekin, umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen kanpoko zein barneko langile moduan. Erreferentzia zenbakia daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 631-95 28 27.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Lanaldi erdian, osoan, orduka... aritzeko prest. Tel.: 631-85 06 74.

Durungaldea. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia dituena, Lehen Hezkuntza eta DBHn partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel: 662-36 41 67 / Tel.: 946-81 39 40.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Esperientzia daukat eskolako jantokietan eta pertsona nagusiak zaintzen. Goizez, lanaldi erdian, orduka, zein gauzez lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 673-68 97 69.

Durungaldea. Lan bila nabil garbiketaren zein pertsonak zaintzen. Goizez, astelehenetik barikura. Durangon zein Matienan. Tel.: 606-78 76 78.

Durungaldea. Lan bila nabil garbiketan edo nagusiak zaintzen. Tel: 631-25 65 46.

Durungaldea. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan aritzeko prest. Eskarmentu handikoa eta erreferentziarekin. Tel.: 631-20 36 07.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile

moduan. Esperientzia dut eta erreferentziak. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-95 28 27.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Astelehenetik barikura orduka edo barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 602-39 98 20.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko zein kanpoko langile moduan. Baita orduka ere. Tel.: 631-16 72 61.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan. Goizez, arratsaldean edo gauzez lan egiteko prest. Tel.: 690-68 73 95.

Durungaldea. Neska gazte euskalduna, EGA, First, monitore titulu eta Haur Hezkuntza ikasten dabilena prest dago haurrak zaintzeko, klase partikularrak emateko eta etxeko lanak egiteko. Lanerako gogo handia du eta badu esperientzia haurrak zaintzen. Tel.: 653 774 977.

Durungaldea. Mutil gaztea lan bila dabil, eraikuntza edo baserrietako lanetan eta zaintzan. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 631-27 91 26.

Durungaldea. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen, orduka edo kanpoko langile moduan. Esperientzia dut eta erreferentziak ditut. Tel.: 722-56 22 41.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Erreferentziarekin, berehala lanean hasteko prest. Tel.: 643-60 05 23.

Durungaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Erreferentziarekin. Tel.: 612-41 41 40.

Durungaldea. Emakumea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Esperientzia dut eta erreferentziak ditut. Paperak ditut.

Tel.: 631-95 28 27

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan lan bila nabil. Orduka, asteburuetan zein barneko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 612-49 25 19.

Durungaldea. Arratsaldean plantxa egiteko eskaintzen dut neure burua, edo nagusiei laguntasuna emateko zein paseatzeko ere bai. Tel.: 697-49 20 58. Lourdes

Durungaldea. Nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan orduka zein barneko langile moduan jarduteko prest. Tel.: 632-87 04 16.

Durungaldea. Lan bila nabil baserriak zaintzen, baserriko lanak egiten, mendiko lanak egiten edo igeltsero lanetan. Tel.: 631-27 91 26.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Kanpoko edo barneko langile moduan. Astegunetan eta asteburuetan, baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziarekin. Tel.: 631-40 83 71.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest dagoen neska arduratsua naiz. Tel.: 602-81 24 42.

Durungaldea. Neska arduratsua naiz eta lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, kanpoko zein barneko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-86 44 26

GAINERAKOAK

Durungaldea. Bulego batean lana bilatzen nabil. Esperientzia dut bulegoko lanetan. Tel.: 606-78 76 78, berehala lanean hasteko prest.

LAN ESKAINTZAK

IRAKASKUNTZA

Durango. Durangoko ikastetxe batean eskola orduetatik kanpo 7 urtetik 12 urtera bitarteko umei antzerki eskolak emateko monitore bat behar dugu. Profesionala edo antzerkigintza zaletua izan daiteke. Harremanetan jartzeko telefono zenbakiak. Tel.: 615-70 19 08 Tel.: 676-17 64 36.

GAINERAKOAK

Zaldibar. Zaldibarren ile-apaintzailea behar dugu amatasun baja bat betetzeko. Tel.: 946-82 67 76.

Denetarik

SALDU / EROSI

Bizikletarako haur-aulkiak salgai. 665 70 75 35

Egurrezko gurdia salgai. Idi parearen egurrezko gurdia salgai. Egoera onean eta azken matrikulazioa 1965ean. 900 euro. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 633 66 64 92.

Hozkailua salgai. Hozkailua saltzen dut, 50 euroren truke. Izozkailua ez dabilen arren, erdi berri dago. Tel.: 636-04 63 18.

Mahaia salgai. Egurrezko mahaia salgai, kristalarekin gainean eta ordenagailuarentzako lekuarekin. Interesa izanez gero, idatzi 695 706 227-ra, whatsapp bat bidali mesedez. Eskerrik asko

Mahaia eta aulkiak salgai.

Bilbon ikastegi bat itxi behar izan dugulako, ikasmahaia, aulkiak eta eserlekuak saltzen ditugu. Batzuk erabili gabeak. Denak berriak, egoera onean. Bilbon daude jasotzeko. Prezio desberdinetan, denetariokoak eta asko daudelako. Banakakoak, binakakoak, ordenagailukoak... Negoziatu daiteke. Tel.: 605-70 55 01. Elena

ERRENTAN

Auto klasikoak eskaintzen dira ospakizunetarako. Seat 600/mini Morris klasikoak eskaintzen dira ospakizun desberdinetarako. Argazkiak eta informazio gehiago whatsapp bitartez. Tel.: 686-65 13 82.

Familia - etxea

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

Ume-kotxea eta osagarriak. Honako hauek salgai ditut: casual-play ume-kotxea (kapazua eta aulkia); kotxean erabiltzeko haurrentzako aulkia (0-18 kg); mcclaren aulkia; lehen hilabeteetan erabiltzeko haur parkea. Prezio interesgarria. Tel.: 665 70 75 35.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 30ean, 23:30ean, Berrizen

Niña Coyote eta Chico Tornado

Rock & rollaren gaua izango da, gaurkoa, Berrizko Elizondoren. Last Fair Deal, Grises eta Niña Coyote eta Chico Tornado taldeak gonbidatu ditu jai batzordeak, 23:30ean



Jaiak

:: ATXONDO (Apata)

EKAINAREN 30ean

11:30ean, sormening tailerra, plazan.

20:30ean, tortilla eta bakailao txapelketa eta afaria, frontoian.

22:30ean, Ayatollah + Kohatu, gaztetxean.

23:00etan, Luhartz, plazan.

UZTAILAREN 1ean

15:00etan, paella jana, frontoian.

17:00etan, mus txapelketa, frontoian.

17:30ean, elektrotxufla, plazatik.

20:00etan, Tio Teronen Semeak, plazan.

22:30ean, Ezten Giro erromeria, plazan.

00:00etan, Reggae gaua, gaztetxean.

UZTAILAREN 2an

11:00etan, herriko gazteen pilota partiduak.

17:00etan, XXXI. igel txapelketa, Itziar tabernan.

18:00etan, emakumeen pala txapelketa. Ondoren, pilota partidu profesionala.

21:00etan, talo jana eta txopoa botatzea, plazan.

:: BERRIZ

EKAINAREN 30ean

12:00etan, 12 urtetik gorakoentzako tribiala, udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 eta 16:00- 19:00, 8 urtetik gorakoentzat jumping, surf, choppers, Berrizburu kiroldegian.

18:30ean, Tio Teronen Semeak, Elizondo plazan.

19:30ean, diskofesta, eskolako patioan.

20:00etan, bits jaiak.

20:30ean, frontenis txapelketen finalak, Olakueta frontoian.

22:00etan, Tributo a Sabina, Elizondo plazan.

23:30ean, Last Fair Deal + Niña Coyote eta Chico Tornado + Grises + DJak.

00:00etan, 60, 70 eta 80ko hamarkadetako berbera.

UZTAILAREN 1ean

10:00etan, koadrilen bazkarirako lekuen zozketa, Elizondo plazan.

12:00etan, umeentzako ekintzak, Umerri eskolan.

12:00-14:00 eta 16:00-19:00, umeentzako jolasak, eskolako patio berrian.

14:00etan, paella lehiaketa, udaletxeko lorategian.

15:00etan, bazkaria, txosnagunean.

17:30ean, mus, tute eta briska lehiaketak.

18:00etan, koadrilen jaitziera.

18:30ean, Rave underground, lorategian.

19:30ean, igel txapelketa.

20:30ean, bolo txapelketa.

22:00etan, Luhartz, Elizondo plazan.

23:00etan, Enkore eta Joxpa, txosnetan.

UZTAILAREN 2an

12:00etan, meza nagusia eta Dantzari Dantza. Potxin eta Patxin pailazoak.

14:00etan, jubilatuentzako bazkaria, kiroldegian.

18:00etan, 3*3 saskibaloi txapelketa. Ostein, jaurtiketa librean txapelketa, Institutuan.

18:30ean, D'Capricho, udaletxeko lorategian.

20:00etan, Dantzari Dantza.

20:30ean, Barbakoa, txosnagunean.

21:00etan, tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian.

23:00etan, su artifizialak. Jaietako argazkien emanaldia, karaokea eta festa tropikala, txosnetan.

23:15ean, Demode Quartet, Elizondo plazan.

:: DURANGO (Fundifest Sorginola Gaztetxean)

EKAINAREN 30ean

11:00etan, auzolana.

17:00etan, Durango pizteko batzarra.

18:30ean, perkusio eta dantza tailerrak.

22:00etan, Hexen + Estricalla, kontzertuan.

UZTAILAREN 1ean

16:00etan, bingo musikatu, parkean.

19:00etan, TPK kontzertuan, parkean.

20:00etan, kalejira gaztetxera.

21:00etan, pintxo dastaketa.

22:00etan, Van + Alerta + Albert Cavalier + DJ Zenn.

:: IURRETA (Amatza)

EKAINAREN 30ean

19:00etan, Donien Atxa igotzea.

19:30ean, dantzarien azken entsegua.

20:00etan, trikitixa jaialdia. Ondoren, afaria.

UZTAILAREN 1ean

20:30ean, tortillen aurkezpena.

21:00etan, afaria, bertsolariak eta erromeria.

UZTAILAREN 2an

11:00etan, meza.

11:30ean, auzoko dantzariak eta luntxa.

15:00etan, bazkari herrikoia. Ondoren, jolasak, karta txapelketa...

UZTAILAREN 4an

11:00etan, meza, eta ondoren, luntxa.



Antzerkia

:: ABADIÑO

EKAINAREN 30ean

19:00etan, 'Comunicado de muerte', Errota kultur etxean.

:: DURANGO

UZTAILAREN 6an

20:00etan, Lapurminak, Balbino Garitaonandia plazan.



Musika

:: DURANGO

UZTAILAREN 2an

20:00etan, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra, Andra Mari elizan.

UZTAILAREN 8an

20:00etan, Carlos Herrero, Kuruzesantu museoko lorategian.

UZTAILAREN 12an

21:00etan, Juan de Diego, Plateruenean.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 7an

22:30ean, The Skatalites, elizpean.

UZTAILAREN 8an

22:30ean, Shaun Booker, plazan.



Erakusketa

:: DURANGO

UZTAILAREN 16ra arte

Jose Carlos Garayren 'Lerroak eta koloreak', Museoa.

:: ZORNOTZA

UZTAILAREN 7ra arte

Aleksander Kelic argazkilaria 'Balkaneros', Zelaieta zentroan.



ZINEMA

:: DURANGO ZUGAZA

Gru 3

. barikua 30: 19:30-22:00
. zapatua 1: 17:00-19:30-22:30
. domeka 2: 16:30-18:45-21:00
. astelehena 3: 18:30-21:00
. martitzena 4: 20:00
. eguaztena 5: 20:00

Aurora

. barikua 30: 19:30-22:00
. zapatua 1: 17:00-19:30-22:30
. domeka 2: 16:30-18:45-21:00
. astelehena 3: 18:30-21:00
. martitzena 4: 20:00
. eguaztena 5: 20:00

Una policia en apuros

. barikua 30: 19:30-22:00
. zapatua 1: 17:00-19:30-22:30
. domeka 2: 16:30-18:45-21:00
. astelehena 3: 18:30-21:00
. martitzena 4: 20:00
. eguaztena 5: 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA

Gru 3: mi villano favorito

. barikua 30: 20:15
. zapatua 1: 19:30-22:00
. domeka 2: 20:00
. astelehena 3: 20:15

> **ESKELAK**



AITZIBER MURGOITOBENA ERDOIZA

*Sentitzen dogu zure irria
Somatzen zure epela
Jakizu gure bihotz bakoitzak
Zure txatal bat duela.*

IURRETAKO EZKER ABERTZALEA



*Elkar hartuta egingo dogu
Ilunpetik argitara
Behar dozuen momentuetan
Alboan egongo gara.*

DURANGALDEKO BERTSO ESKOLA

*Beti geratuko jzaku Laixiar!!!
Betirako Aitziber!*

IJJORRETAKO LAGUNEK

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> **Ainhoak** ekainaren 20an bete zituen urteak, **Iredak** 26an eta **Martinek** 28an. Zorionak eta muxuak denontzat aitaren partez.



> Zorionak, **Laureano** Berrizko Karate taldea, Durangoko Muay Thai eta Elorrixoko Kick Boxing taldeen partez. Arte martzialen maisu handia zara!



> Gure etxeko printzesak asteartean bederatzi urte beteko ditu. Zorionak, **Ane!** Musu handi bat zure ahizpa Aiala eta etxeko danon partez. Jarraitu irribarre horrekin!



> Uztailaren 2an urteak betetzen dituzu, eta zorionak **Eneritz!** Egun ona pasa Mikelen eta maite zaitugunon partez. Muxu erraldoi bat.



> Etxeko astokilotxuek hiru urte beteko dauz zapatuen. Jarraitu hain maitagarria eta alai izaten. Musu potolo bat Intza, Irati, aitaxo eta amatxon partez.



> Zorionak, **Irati.** 8 urte! Zu bai zu jatorra eta sinpatikie! Patxo bat etxekuen partez!



> **Elene Garitaonandia** jai da. Zorionak lagun danen partez.



> **Oihane** atzo 7 urte bete zituen. Oso ondo pasa eta muxu handi bat!



> Zorionak, tximista! Musu bat etxekoan partez! Primeran pasatuko dugu zure merendolan!

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 30 09:00-09:00	Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	09:00-22:00
Sanchez, Miren Itziar Urbitarite poligonoa, 4 P8, Abadiño	Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	ZAPATUA, 1 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	

Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	09:00-13:30
Navarro Artekalea 6 - Durango	De Diego Intxaurren 22. - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	Bartolome Gabiola 2 - Berriz
Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
DOMEKA, 2 09:00-09:00	Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Guarrochena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	ASTELEHENA, 3 09:00-09:00
De Diego Intxaurren 22. - Durango	

Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	MARTITZENA, 4 09:00-09:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 5 09:00-09:00	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	EGUENA, 6 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza



Anbotoren Lagunak

ALKI DEKORAZIOAK emandako koadroa zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

AURREKO ASTEKO ZOZKETAREN IRABAZLEA INGURU ABENTURAK zubi-saltoan egiteko bonua

GONTZAL AIZPURUA ONDARO

ZORIONAK!

ALKI DEKORAZIOA

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak
Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

“Jai giroa alaitu eta lagunartean jotzeko izan da beti soinua; inoiz ez lehiatzeko”

I. Markina-Xemeingo helduen trikiti txapelketan joko dute Petite neba-arrebek, uztailaren 8an

> AKUILUA Aitziber Basauri
 Trikiti doinuek egingo diete ongiatorria aurten ere Amatzako sanmartin jaiei. Donien Atxa igota, dantzariak azken entsegua eskainiko dute, eta gero III. Trikiti Jaialdiari emango zaio hasiera. Jaien biharamuna pasatuta, I. Markina-Xemeingo helduen trikiti txapelketan joko dute Petite neba-arrebek. Estreinakoz lehiatuko dira, eta egun horretarako koplak batzuk ere sortu dituzte.

Nola jaiotzen da trikiti jaialdia?
Ainara Petite: Auzoan beti jo dugu soinua; oso sartuta egon da beti.
Hegoi Petite: Hala da, eta inguruko lagunekin erakustaldia egingo da.

pentsatu nuen; urtero etortzen diren Durangoko Ainhoa eta Eneritzegaz, adibidez. Haiekin ikasi genuen guk. Horretarako, irakasle izan nuen Arkaitz Aiurregaz jarri nintzen kontaktuan. Azkenean, indar handiko jaialdia lortu genuen. Dirurik eta azpiegiturarik barik sei bikote batu genituen 2015ean, hori bai, bizkaitarrik batere ez.

Hasiera indartsua izan zen?

H.P.: Bai, eta eutsi gura genion. Ideia ondo hartu zuten udalean ere, eta Amatzako trikiti elkarteak sortu genuen. Aspaldi Iurretan egiten zen trikiti jaialdia, Errosario egunez. Hori berreskuratzeko gura genuen.

Huntza, Kupela, Eneritz eta Edurtzeta... etorri ziren iaz. Aurten, Laja eta Landakanda. Badira nor!

H.P.: Inork ez zuen ezagutzen iaz Huntza. Orain, berriz... Hala ere, bikote guztiak dira oso onak. Trikiti munduan dira batez ere oso ezagunak.

A.P.: Laja eta Landakanda ere izen handikoak dira. Jubilatze-ko dira, baina etorriko dira.

Zaleentzat plaza handia izango da Amatzako aurten ere?

H.P.: Bai. Zabaletak eta Motrikuk, adibidez, Kepa Junkeragaz jotzen zuten. Iurretan hasi ziren hirurak trikiti jotzen, Tiliñoren bitartez. Junkerak izan du oihartzuna, baina Zabaleta eta Motriku ere oso onak dira.

**Entzun dugu afa-
lostekoa dela berezia.**

H.P.: Politena da! Gaurko egunez trikitezaleak batzen gara, eta trikitalari piloak. Denok jotzen dugu eta giro berezia sortzen da. Iaz, 200 lagun batu ginen afaltzeko. Gurean halako jaialdia antolatu eta ikusteko aukera gura genuen. Gero konturatu gara jende asko erakarri dezakeela.
A.P.: Auzo bat izan

nik, ea larregitxo ez ote zen esan ziguten hasieran.

I. Markina-Xemeingo helduen trikiti txapelketan ere joko duzue. Lehenengoz?

H.P.: Bai. 10 urtegeaz hasi nintzen soinua jotzen ikasten, eta baditut abesti indartsu batzuk. Hala ere, ez dut inoiz horiek defendatzeko aukerarik izan. Neuk animatu nuen Ainara, norbere buruari presio pixka bat egin eta abestiotan sakontzeko, murgiltzeko aukera zela ikusi nuen-eta. Gerora ikusi dut mailako trikitalariekin lehiatuko garela (barrez): Amatzan egongo diren Leire Zumeta eta Amaia Arza, edo Eneko Dorrioso —Los Zopilotes Txirriosen jotzen du—, adibidez.
A.P.: Jai giroa alaitu eta lagunartean jotzeko izan da beti soinua guretzat. Inoiz ez lehiatzeko. Erroka da guretzat. Hala ere, ondo pasatzera, esperientzia berri bat bizitzera goaz.

Argazkilaria zara, Ainara. Izango da argazkiri txapelagaz?

A.P.: Pentsaezina da horrelakorik! Ez noa horretara. Oso lotsatia naiz. Irrintziren bat botatzen nuen txikitari; orain, batere ez. Animatuena, alaiena, grazia duena panderojolea izan ohi da. Soinu-jolea jotzera mugatu ei da. Gure kasuan alderantziz da. Erroka handia da niretzat.

Chapito Guzmanen jotzen duzu, Hegoi. Soinu edozein egoerara moldatzen da?

H.P.: Edozein erritmora moldatzen da. Iaz Amatzan egindako debuta ez zen oso ondo joan, baina hobetu egin dugu.



LAUHORTZA

PAUL BUSTINDUI REVUELTA

Kazetaria



Errimekin multiploka

New Yorkeko auzuneetan sortua 70eko hamarkadan, denboraren poderioz publiko gaztearen artean modan jarri den fenomeno da hip-hop. Azken mendean, freestyle modalitatea da nagusitzen doana. Bertan, bi aurkari lehiatzen dira, bata bestearen aurka, bakoitzaren tresna bakarra momentuan sortutako rap estrofa izanik. Gaztelania hizkuntza duten herrialdeetan izugarri hedatu den fenomeno da, Espainiako estatuaz gain Hego Amerikan bereziki. Euskal Herrian, mendeak daramatzate bertsolariek errimekin multiploka ateratzen, baina bertso eskoletan gero eta nabarmenagoa da gazte falta. Beste hizkuntzetan fenomeno berrien gorakada eman den heinean, bertsolaritzan antzinarok teknika eta formak bere horretan jarraitu dute, atal berri bat zabaltzeko erabili eginez.

Mende hasierako boomean kokatutako belaunaldia errelebo bila ari da. Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta besteak urteetan izan dira errelebo gaztea, baina orain hauek dira beste errelebo baten bila dabiltzan horiek. Bertso txapelketa nagusiek izar gazteren baten beharra dute, hasten ari diren ispilu bihurtzeko. Urtero egiten den freestyle rap txapelketako partaide gehienak 26 urtetik beherakoak dira, eta honek asko errazten du gazteekiko duten konexioa. Duela 40 urte gertatu zen bezalako aldaketa baten esperoan egon daiteke bertsolaritza rapeko genero berri honetara jauzia eginez. Baliteke urte batzuen buruan Xenpelar, Txirrita eta Lujanbioen lekukoa euskarazko freestyle hartzeko. Euskaraz errimekin multiploka ateratzeko dagoen baso berri eta zabal bat esploratu gabe dago.

Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

Bidali zure argazkiak uztailaren 3tik irailaren 30era

2 KATEGORIA SARITUKO DIRA:

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

2016ko Durangaldeko argazkiri onena
JOSEBA ACEDO

2016ko Durangaldekotik kanpoko argazkiri onena
LEIRE UNZUETA

UDAKO 3. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA **anboto**

LAGUNTZAILEAK